



ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

50 URTE
AÑOS
1968 - 2018

Biba Zientzia!
Ciencia Viva

BIOLOGIAKO GRADUA

4. MAILAKO IKASLEAREN GIDA (31 TALDEA-EUSKARA)

2026-27 IKASTURTEA

Edukien taula

1.- Biologiako Graduari buruzko informazioa.....	3
Aurkezpena.....	3
Eskuratutako gaitasunak.....	3
Graduaren egitura	4
Laugarren mailako hautazko irakasgaiak	4
Egin beharreko jarduera motak	5
Gradu Amaierako Lana (GrAL).....	6
Tutoretza akademikoak	6
Tutoretza plana (TP).....	6
Mugikortasuna	7
Kanpoko praktika akademikoak.....	7
Segurtasuna	7
Irakaslanean ezarri beharreko segurtasun neurriak	7
Norbera babesteko ekipamenduen (NBE) erabilera.....	7
Koordinazioa	8
Bestelako informazio interesgarria.....	8
2.- Taldearentzako informazio espezifiko	8
Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan.....	8
Egutegia, ordutegia eta azterketak.....	8
Irakasleak	9
3.- Laugarren mailako irakasgaiari buruzko informazioa	9

Gida hau Biologiako Graduako Ikasketa Batzordeak (BIOLGIB) egin du

1.- Biologiako Graduari buruzko informazioa

Aurkezpena

Darabilen metodologiagatik eta sortzen dituen ezagutzengatik, Biologia zientzia esperimentalen funtsezko zatia da. Azkar ari da aurrera egiten eta oso eragin handia izaten ari da gizartearen garapenean. Biologiako Graduak mundu biziduna aztertzen du, hainbat mailatan, molekulatik hasi eta biosferaraino, eta hainbat ikuspegitatik (egiturazkoak, funtzionalak eta eboluziozkoak), eta integrazio maila handia dakar berekin. Graduaren konfigurazioari esker, izaki bizidunen aniztasunaz eta konplexutasun estruktural eta funtzionalaz jabetuko diren profesionalak prestatuko dira. Izaki horien antolaketa maila guztiak (zelulak, banakoak, populazioak, komunitateak eta ekosistemak) aztertuko dituzte, lortutako informazioa gai aplikatuetara igarotzea ahalbidetuko duen ikuspegi integratzailetik. Biologoaren eremu profesionalen artean ondorengoak aipa daitezke: osasuna, ikerketa eta garapen zientifikoa, farmazia industria, nekazaritzako elikagaien industria, industria kimikoa eta nekazaritza eta abelazkuntzako industria, ingurumen kudeaketa eta hezkuntza (bigarren mailako irakaskuntza eta unibertsitateko irakaskuntza).

Tituluaren kredituak: 240 ECTS

UPV/EHUren beraren araudiaren arabera, ECTS kreditu bat 25 lanordu dira, ikasleak gai bati dagozkion ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak hartzeko egin behar dituenak. Ordu horietan sartzen dira eskolak hartzen (teorikoak edo praktikoak), ikasten, mintegiak, lanak, praktikak edo proiektuak prestatzen, eta azterketak eta ebaluazio probak prestatzen eta egiten emandako orduak.

Espezialitateak:

- Biodibertsitatea eta Eboluzioa
- Ingurumen Biologia
- Zelulen Biologia, Molekularra eta Genetika

Prestakuntza prozesuan erabiliko diren hizkuntzak: gaztelania/euskara/ingeleza (eskaintza gero eta zabalagoa da UPV/EHUren Eleaniztasun Planaren esparruan).

Eskuratutako gaitasunak

Hauek dira gradu hau amaitzean eskuratuko dituzun gaitasun nagusiak:

T01. Bizitzaren kontzeptuari eta jatorriari, antolamendu motei eta antolamendu-mailei eta karaktereak transmititzeko mekanismoei buruzko jakintzak (bilakaerari datxezkion prozesuak interpretatzeko aukera emango dutenak) eskuratzea.

T02. Biodibertsitatearen oinarri genetikoak, morfologikoak eta funtzionalak azaltzea eta animaliak, landareak, onddoak, mikroorganismoak eta birusak katalogatzeko, azterketa filogenetikoak egiteko eta baliabide naturalak behar bezala kudeatzeko tresnak garatzea.

T03. Izaki bizidunen funtzionamenduaren oinarri molekularrak ezagutzea, biomolekulak isolatu, aztertu eta identifikatzea, jarduera metabolikoak ebaluatzea eta diagnostiko genetiko eta molekularrak egitea.

T04. Hainbat zelula, ehun eta organismo mota lortu, erabili, kontserbatu eta behatzeko izaki bizidunen egitura, antolamendu eta garapenari buruz beharrezkoak diren jakintza orokorrak edukitzea.

T05. Organismoen funtzioak eta jarduerak antolamendu biologikoaren maila guztietan eta ingurunearekiko egokitze-maila guztietan erregulatu eta integratzeko oinarriak identifikatzea, bioprozesuak produzitu eta hobetzeko azterketak diseinatu eta aplikatzeko.

T06. Ingurune fisikoari buruzko oinarri sendoa erakustea, ekosistemen egitura eta funtzionamendua interpretatzen lagunduko duena eta populazioak eta ekosistemak ebaluatu, planifikatu, kudeatu, kontserbatu eta leheneratzea ahalbidetuko duena.

T07. Arlo instrumentalei buruzko oinarritzko jakintzak behar bezala erabiltzea informazioa lortzeko, esperimentuak diseinatzeko eta Biologiako emaitzak interpretatzeko.

T08. Biologoaren lanbidearen ingurune zientifiko eta soziala kontuan hartuta, haren lanbide-eskumenen eremuan zerbitzuak egin eta proiektuak zuzendu, idatzi eta egikaritzea, eta komunitate zientifikoari eta gizarteari jakinaraztea.

T09. Erabakiak hartzeko eta informazioa landu eta helarazteko gaituko duen azterketa, sintesi, antolaketa eta plangintzarako ahalmena garatzea.

T10. Talde-lana bultzatuko duten pertsona arteko harremanetan trebetasunak garatzea eta arrazoiketa kritikoan eta gizartearen balioekiko konpromiso etikoan aurrera egitea.

T11. Ikaskuntza autonomo jarraiturako tresnak eskuratzea ahalbidetuko duen eta ekimena, berrikuntza, kalitatearekiko motibazioa eta ingurumen-gaien inguruko sentsibilitatea sustatuko dituen jarrera positiboa agertzea.

T12. Produktu kimikoak eta organismo biologikoak manipulatzeko dakartzen arriskuak behar bezala balioestea laborategietan jarduteko prozedura seguruak aplikatzeko, betiere lan-segurtasunari, hondakin arriskutsuen kudeaketari eta ingurumen-inpaktuari buruzko legeriari jarraiki.

Zeharkako Gaitasunak

Testuinguru zehatz bateko beharren aurrean eraginkortasunez jokatzeko, pertsona batek modu integratuan erabiltzeko gai izan behar duen trebetasun eta jarrera multzoa. Zeharkako gaitasunek, beraz, hezkuntza programa baten ikaskuntza emaitzak deskribatzen dituzten gaitasun eta jarrera multzoa osatzen dute. Biologiako graduako zeharkako gaitasunak hurrengoak dira:

- ZG1 Konpromiso etikoa
- ZG2 Ikaskuntza gaitasuna
- ZG3 Talde-lana
- ZG4 Sormen eta ekintzaile gaitasuna
- ZG5 Komunikazio gaitasuna
- ZG6 Autonomia eta erantzukizuna

Graduaren egitura

MAIL	LAUHILEKOA	IRAKASGAIA	ECT	MOTA ¹
1. ^a	1. ^a	ZELULEN BIOLOGIA	6	N
		BIOKIMIKA I	6	N, BAO
		MATEMATIKA	6	N, ZO
		KIMIKA	6	N, ZO
	2. ^a	BIOESTATISTIKA	6	N, ZO
		BIOKIMIKA II	6	N, BAO
		BIOLOGIAKO KONTZEPTUAK ETA METODOA	6	N, ZO
	URTEKOA	FISIKA	9	N, ZO
		GEOLOGIA*	9	N, ZO
2. ^a	1. ^a	GENETIKA	6	N
		MIKROBIOLOGIA	6	N
		TERMODINAMIKA ETA ZINETIKA KIMIKOA	6	N, ZO
	2. ^a	EHUNEN BIOLOGIA	6	N
		MIKROORGANISMOEN DIBERTSITATEA	6	N
		GENETIKA MOLEKULARRA	6	N
	URTEKOA	BOTANIKA	12	N
		ZOOLOGIA*	12	N
3. ^a	1. ^a	LANDAREEN FISILOGIAREN OINARRIAK*	6	N
		ANIMALIEN FISILOGIAREN OINARRIAK*	6	N
		ANTROPOLOGIA FISIKO*	6	N
		HAUTAZKO IRAKASGAI BAT	6	Hz
	2. ^a	ZUZENBIDEA ETA ETIKA BIOZIENTZIAN	6	N
		LANDAREEN FIOLOGIA AURRERATUA	6	N
		ANIMALIEN SISTEMEN FIOLOGIA	6	N
		HAUTAZKO IRAKASGAI BAT	6	Hz
	URTEKOA	EKOLOGIA*	12	N
4. ^a	1 eta 2	HAUTAZKO IRAKASGAIK	12	N
	URTEKOA	GRADU AMAIERAKO LANA	48	Hz

¹N: Nahitaezkoa, Hz: Hautazkoa, ZO: Zientzietako oinarritzkoa, BAO:Beste adar batzuetako oinarritzkoa

*Ingelese ere e4skaintzen da

Laugarren mailako hautazko irakasgaiak

Ikasleek, beren interesen arabera, hautazko irakasgaiak aukeratu ahal izango dituzte aurreikusitako ibilbide edo espezialitate desberdinen barruan, Graduan eskatzen diren hautazko 60 ECTSak osatu arte. UPV/EHUko

Biologiako Graduan proposatzen diren espezialitate edo ibilbideak 3 dira, eta horietako bakoitzak 43,5 ECTSko eskaintza dakar:

- ❖ Biodibertsitatea eta Eboluzioa
- ❖ Ingurumen Biologia
- ❖ Zelulen Biologia, Molekularra eta Genetikoa

Graduko akademia antolakuntza 3 ibilbide horiek kontuan hartuta ezarri den arren, hautazkoak multzo horiek kontuan hartu gabe aukera daitezke. Hala ere, eskaintzen den espezialitate edo ibilbideren bat egin izanaren aintzatespena jaso nahi duten ikasleek aukeratutako espezialitateko irakasgaiekin bete beharko dituzte 30 ECTS gutxienez. Ikasleren batek 30 ECTS (edo gehiago) espezialitate bat baino gehiagotan egingo balitu, graduatu tituluaren aurreko aldean kreditu gehien egin dituen espezialitatea agertuko da, eta besteak graduatu tituluaren atzeko aldean.

Biologiako Graduko hautazko irakasgaien eskaintzan Euskara Plan Zuzentzailean aurreikusitako bi irakasgai sartzen dira, bakoitza 6 ECTSkoa, unibertsitate honetako gradu guztietarako aplikagarri direnak (1. Taula).

1. Taula. Biodibertsitatea eta Eboluzioa, Ingurumen Biologia, Zelulen Biologia, Molekularra eta Genetikoa espezialitateetako hautazko irakasgaiak.

Lauh.	Ingurumen Biologia	ECTS	Biodibertsitatea eta Eboluzioa	ECTS	Zelulen Biologia, Molekularra eta Genetikoa	ECTS
1.	Baso Ekologia	4,5	Onddoen eta Algen Dibertsitatea	6,0	Zelulen Biologia Molekularra	6,0
1.	Landareen Ekofisiologia	6,0	Landare Baskularren Dibertsitatea	4,5	Mikroorganismoen Fisiologia	4,5
1.	Itsas Ekologia	6,0	Ornodunak	6,0		
1.			Entomologia	6,0		
1.			Eboluzio Molekularra			4,5
1.	Idatzizko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz					6,0
2.	Animalien Ingurumen Fisiologia	6,0	Giza Eboluzioa	6,0	Ingeniaritza Genetikoa eta Analisi Genetiko Molekularra	6,0
2.	Ingurumen Mikrobiologia	4,5			Histologia kKonparatua	4,5
					Mikrobiologia Aplikatua	6,0
2.	Limnologia	6,0			Antropogenetika	6,0
2.	Geobotanika			6,0		
2.	Zoogeografia			4,5		
2.	Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz					6,0

Oharrak: Zelulen Biologia Molekularra, Ornodunak eta Giza Eboluzioa ingelesez ere eskaintzen dira. Landare Ekofisiologia, Landare Baskularren Dibertsitatea, Idatzizko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz eta Ahozko Komunikazio Zientifiko-Teknikoa Euskaraz, euskaraz bakarrik eskaintzen dira. Onddo eta Algen Dibertsitatea eta Geobotanika gaztelaniaz bakarrik eskaintzen dira

Egin beharreko jarduera motak

Biologiako Graduan, **eskola magistralak (M)**, **mintegiak (S)**, **ikasgelako praktikak (GA)**, **laborategikoak (PL/GL)**, **landa praktikak (GCA)** eta **ordenagailuko praktikak (GO)** ikasteko funtsezko irakaskuntza modalitateak dira. Horiek guztiak lehenengo mailatik erabiltzen dira, nahiz eta irakasgai bakoitzean pisu erlatibo ezberdina hartzen duten Graduak aurrera egin ahala. Irakaskuntza modalitate horien guztien erabilerak graduatuaren profesionalizazioa eta, bere, jardute esparruari dagozkion trebetasun tekniko, metodologiko eta intelektualen garapena bermatzen du.

Gradu Amaierako Lana (GrAL)

Gradu Amaierako Lana (GrAL) ikasle bakoitzak zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean banaka egin behar duen proiektu, memoria edo azterlana da. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, Graduako ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak.

GrALean ikasleek beren ikasketetan zehar eskuratutako ezagutzak aplikatzeko aukera izango dute lan edo proiektu zientifiko/tekniko batean, eta horrekin batera, titulazioko lan-arlo desberdinei lotutako memoria bat idatziko dute. Beraz, GrALean titulazioari lotutako gaitasun orokorrak aplikatuko dira, eta datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatuko dira. Datu horiek, normalean, ikasketei lotutakoak izango dira; era horretan izaera zientifiko edota teknologikoko gai garrantzitsuei buruzko gogoetak egin, eta pentsamendu kritiko, logiko eta sortzailea garatzen laguntzen duten iritziak eman ahal izango dira.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari Buruzko Arautegian ikasleek GrALa egiten hasteko ezagutu behar dituzten fase eta bete beharreko baldintzen inguruko xehetasunak azaltzen dira. Hurrengoak dira 2026/27 ikasturteko data garrantzitsuak:

Aurreinskripzioa (2026ko uztailak 8-10, biak barne): online betetzeko formularioaren bidezko aurreinskripzioa: https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/tfg_aurreinskripzioa

Inskripzioa edo izen-ematea: GrALean izena emateko, 72 kreditu eduki daitezke gehienez egin gabe (4. mailako 60 kredituak eta aurreko ikasturteetatik gehienez gera daitezkeen 12). Bi aukera daude:

- **2026ko irailak 1-4 (biak barne):** irakasleek ikasleekin **adostutako lanen** izenak ematen dituzte eta, aldi berean, adostu gabeko lanen gaiak eskaintzen dituzte, gero ikasleek hautatu ditzaten.
- **2026ko irailak 16-18 (biak barne):** **adostutako lanik ez** duten ikasleek GAUREn bidez egiten dute gaien aukeraketa. Zerrendatik gehienez bost gai hautatu daitezke.

Esleipena (2026ko irailak 21-25 (biak barne): GrALen gaien behin betiko esleipena egindakoan ikasleei posta elektronikoko bidez mezua helarazten zaie.

Matrikulazioa, memoria entregatzea eta defentsa: matrikulak bi defentsa deialditarako eskubidea ematen du ikasturteko. Matrikulatzeko, ikasleak Graduako kreditu guztiak gaindituta izan behar ditu, GrALarenak izan ezik. 2026/27 ikasturtean, honako hauek izango dira matrikularako eta defentsarako datak:

Deialdia	Matrikula eta Memoria entregatzea	Defentsa
Otsaila	2027ko otsailaren 10-12	2027ko martxoaren 2-4
Ekaina	2027ko ekainaren 16-18	2027ko uztailaren 6-8
Abuztua	2027ko uztailaren 20-22	2027ko irailaren 7-9

GrALari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/trabajos-fin-grado>

Tutoretza akademikoak

Tutoretza akademikoa da irakaslearen bidez ikasleari eskaintzen zaion aholkularitza eta orientazio akademikorako prozesua. Aholkularitza hau ikasleak ikasten ari diren irakasgaietan laguntza eskaintzeko bideratuta dago. Lauhileko bakoitzaren hasieran irakasle bakoitzak bere tutoretza-ordutegia jakinaraziko du.

Tutoretza plana (TP)

Tutoretza Planak (TP) irakasle tutore bat edukitzeko aukera eskaintzen die ikasleei eta, horrela, unibertsitateko bizitzaren alderdi guztietan integratzea errazagoa izango dute. Horrez gain, irakasle tutore bakoitzak ikasleen ibilbide akademiko osoan zehar orientatuko ditu bere ikasleak.

Irakasle tutoreen xedeak hurrengo hauek dira:

- Prestakuntza integraleko prozesuan ikasleei laguntzea, ikuspegi akademiko, pertsonal eta profesionalean.
- Ikasleei Fakultatearen jarduera akademikoan integratzen laguntzea.
- Ikasleei unibertsitatean eskuragarri dituzten zerbitzu eta jardueren berri ematea.
- Ikasketa aldian ager daitezkeen zailtasunak identifikatzea eta ikasteko gaitasun eta estrategien garapena erraztea.

- Curriculum ibilbidea aukeratzearen inguruko erabakiak hartzeko aholku ematea.
- Ikasleen garapen akademiko eta profesionalerako interesgarria izan daitekeen informazioa ematea.

Lehenengo mailaren hasieran, irakasle tutore bana esleituko zaie ikasleei. Esleipen hori indarrean egongo da Biologian graduazioa lortu arte. Hala ere, arrazoi sendoak argudiatuz, bai irakasle tutoreek bai tutoretzapeko ikasleek berresleipen bat eska dezakete Biologiako Gradurako Tutoretza Planaren (BIOLTP) koordinatzailearen bidez.

Behar izanez gero, tutoretza prozesua banakakoa izan daiteke, baina oro har taldeka egingo da, irakasle tutore bakoitza bere ikasleen taldearekin elkartuz.

Ikasturte hasierako lehenengo asteetan, irakasle tutore bakoitza egokitutako ikasleekin harremanetan jarriko da, tutoretza prozedura eta TPn programaturiko jardueren egutegia zehazteko; horretarako, unibertsitateko posta elektronikoa erabiliko da.

Zein izan behar da ikasleen konpromisoa?

- ❖ TPn programatutako bileretara joatea.
- ❖ Ikasturtea amaitzean TP ebaluatzea.

Mugikortasuna

Fakultateak parte hartzen duen mugikortasun programen bidez, ikasleek aukera izango dute lauhileko edo ikasturte oso bat beste unibertsitate batean ikasteko. Bete beharreko baldintzak eta kontuan izan beharreko gainerako informazioa hurrengo estekan ikus daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/programas-intercambio-alumnado>

Kanpoko praktika akademikoak

Biologiako graduak curriculumetik kanpoko praktika akademikoak ditu; borondatezkoak, beraz. Dena den, kanpoko enpresetan praktikak egiten dituzten ikasleek aukera gehiago dituzte lanean hasteko eta, gainera, ezagutza eta gaitasun praktikoak bereganatzen dituzte, esperientzia profesionala.

Enpresetako praktikei eta prestakuntza osagarriari buruzko informazioa Komunikazio eta Gizarte Hedakuntzako Dekanordetzari dagokio, eta fakultateko idazkaritzan kokatuta dagoen Ikasleentzako Arreta Zerbitzuaren bitartez kudeatzen da:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/insercion-laboral>

Segurtasuna

Irakaslanean ezarri beharreko segurtasun neurriak

- Oro har, ikasle orok bere inguruan dauden segurtasun elementuetara ohitu behar du (su itzalgailuak, mahukak, segurtasun duxak eta begiak garbitzekoak non dauden jakin behar du), baita larrialdietako irteera nagusien berri izan ere. Irteera horiek errespetatu egin behar dira eta horietan oztopo izango den elementurik egotea saihestu behar da.
- Laborategiko praktikaketa landa lanak egin bitartean, horietaz arduratzen diren irakasleek Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Printzipioak aplikatuko dituzte, baita praktiketan jardunbide egokien kodeak betetzen direla zaindu ere.
- Laborategirako sarbidea mugatua izango da eta irakasle arduradunek kontrolatuko dute.

Norbera babesteko ekipamenduen (NBE) erabilera

- Laborategiko praktiketan ezinbestekoa da bata erabiltzea. Ikaslea arduratuko da bata erosteaz.
- Irakasleek hala eskatuz gero, segurtasun betaurrekoak erabili beharko dira. Ikasleak arduratuko dira norbera babesteko ekipa hau erosteaz.
- Beharrezkoa izanez gero, erabili eta botatzeko eskularruak banatuko dira produktu arriskutsuekin lan egiterakoan eskuak babesteko.

Koordinazioa

Gradu Ikasketen Batzordeak (GIB) Gradu koordinazioaz arduratzen dira, hau da, Graduaren curriculumaren garapenaz, jarraipenaz, berrikuspenaz eta hobekuntzaz arduratzen dira. Biologiako Gradu GIBei buruzko informazio gaurkotua hurrengo estekan kontsultatu daiteke: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/comisiones-grado#GraduIkasketenBatzor1>

Gainera, Gradu irakasgai bakoitzerako koordinatzaile bat izendatuko da, zeina irakasgai hura ematen duen irakasle-taldea koordinatzeaz arduratuko baita. Biologiako Gradu irakasgaietako koordinatzaileak hurrengo estekan kontsultatu daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/coordinacion-de-asignaturas-bio>

Bestelako informazio interesgarria

Graduko zenbait irakasgaitan, irakasleek ikasgela birtuala erabiltzen dute irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Ikasgela horiek eGelan daude (<https://egela.ehu.eus>). eGelan sartzeko LDAP erabiltzaile-izena behar da, ikasle bakoitzari esleitzen zaiona ikasle berriko matrikula egitean. LDAP erabiltzailea ere GAURen sartzeko erabiltzen da, zeina administrazio tramiteak eta ikasleen bizitza akademikoari lotutako datuak kontsultatzeko erabiltzen den erreminta informatikoa baita.

Biologiako Graduan matrikulatutako ikasle bakoitzak posta elektronikoko korporatibo propioa dauka; kasu honetan ere, ikasle berriko matrikula egitean helbidea eta pasahitza esleitzen zaio ikasle bakoitzari. Helbide honetara iristen dira irakasleek, eGelak, dekanotza taldeak eta unibertsitateko bestelako estamentuek bidalitako mezuak. Helbide honetara iristen diren mezuak posta elektronikoko pertsonalera birbideratu daitezke. Informazio gehiago hurrengo estekan:

https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/bbc_alumnado

Partekatutako fitxategi ostatu-zerbitzua ere dago (<https://www.ehu.eus/eu/group/ikt-tic/bildu>).

Posta korporatiboaren erabilerari edo UPV/EHUko zerbitzu informatikoei lotutako edozein zalantza edo arazo izanez gero, gomendagarria da EAZrekin (Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua) kontaktatzea <https://lagun.ehu.es/> web orriaren bidez, LDAP erabiltzailea erabiliz. EAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/ikt-tic/eaz-cau> estekan.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikaslearentzako Arreta Zerbitzuak (ZTFIAZ) aholku ematen die ikasleei, eta enpresetako praktiketan zein akademi-elkartruke programetan parte hartzeko beharrezko izapidetz ere arduratzen da. Fakultateko Idazkaritzan kokatuta dago. ZTFIAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/atencion-estudiantes> estekan.

Biologiako Graduari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/grado-biologia>

Fakultateko web orria:

<https://www.ehu.eus/zientzia-teknologia-fakultatea>

2.- Taldearentzako informazio espezifiko

Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan

Irakasleek, eskolen hasieran, ikasleen banaketa irakaskuntza-talde desberdinetara emango dute.

Egutegia, ordutegia eta azterketak

Zentroko eskola-egutegia webgune honetan kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/calendario>

Ordutegi ofizialak, jarduera bakoitza emango den ikasgelen inguruko informazioarekin batera, eta azterketen egutegi ofiziala fakultateko web-orrian argitaratu eta eguneratuko dira:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/egutegia-ordutegiak>

Horrez gain, aurreko estekan ere Gradu ikasgaietarako izendatutako 5. eta 6. deialdiko tribunalak kontsultatu daitezke.

Irakasleak

Gradu honetako ikasgaiak ematen dituzten irakasleen inguruko informazioa (harremanetarako datuak, tutoretza-orduak) graduako webgune instituzionalean kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/biologiako-gradua/irakasleak>

Lotura horretan, irakasle baten informazioa ikusi ahal izateko, nahikoa da irakaslearen izenaren gainean klik egitea.

3.- Laugarren mailako irakasgaiei buruzko informazioa

| Irakasgaiak alfabetikoki ordenatuta daude.

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztu gabea

Plana GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Ikastaroa 4. maila

IRAKASGAIA

28279 - Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

IRAKASGAI HAU EUSKARAZ BAINO EZ DA ESKAINTZEN.

Irakasgai hau hautazkoa da Biologia gradu 4. mailako ikasleentzat. Komunikazio zientifiko-teknikoa landuko da: dokumentazioa, berrikuspen bibliografikoak eta testu-genero ohikoenak. Horretarako, espezializazio maila desberdinetako idatzizko eta ahozko testuak landuko dira: ikerketa-artikuluak, dibulgazioak, poster zientifikoak, ahozko aurkezpenak, dibulgazio-hitzaldiak e.a. Berariaz sakonduko da ahozko komunikazioan. Biozientzien alorreko terminologia eta adierazpideak ere landuko dira aipatutako testu-generoekin lotuta.

Lotura zuzena du gradu berean hautazko irakasgai den Idatzizko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz (IKZTE) irakasgaiarekin (4. mailan egin daitekeena hau ere, lehenengo lauhilekoan). Nolanahi ere, IKZTE irakasgai gehiago sakonduko da idatzizko testu-generoetan, eta Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz (AKZTE) irakasgai honetan, ahozko eta idatzizko testuak landuko badira ere, lan-ildo nagusia ahozko komunikazioaren bereizgarriak izango dira.

Irakasgaiok lotura zuzena dute baita Biologia Gradu zenbait gaitasun zehatzekin ere:

- T09/CM05C9. Erabakiak hartzeko eta informazioa landu zein transmititzeko gaitasuna (azterketa, laburpen zein antolaketa gaitasuna) lantzea
- CM01C17/CM02C19/CM03C18/CM04C7. Biologiako datu eta informazio ezberdina ebaluatu, interpretatu eta laburtu.
- CM01C20/CM02C22/CM03C21. Izaera zientifiko-teknologikodun idatzkiak landu.
- CM01C21/CM02C23/CM03C22. Biologiaren irakaskuntzarako eta beronen hedapenerako beharrezko diren ezagutzak era egokian komunikatu hezkuntzako maila guztietan.
- CM06C2. Ama-hizkuntzaren idatzizko zein ahozko adierazpenean aurrera egitea eta era berean, komunikazio zientifikorako ingelesaren erabilera suspertzea.
- CM06C8. Biologiako proiektuak zuzendu, idatzi eta burutu.
- CM06C11. Hezkuntza sisteman biologiaren inguruko edukiak irakasteko beharrezko eta oinarritzko kontzeptuak era egokian komunikatzea.

Horretaz gain, gradu amaierako lana prestatzen ari diren ikasleei oso baliagarri izango zaie irakasgai hau, txosten zientifikoak idazteko eta ahozko aurkezpen akademikoetarako beharrezkoak diren baliabideak eta trebetasunak landuko baitira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Goi-mailako tituludunek euskararen erabilera eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, eta norberaren komunikazio-rola berraztertzea testuinguru horretan.
2. Informazio zientifiko bilatzea, ulertzea, sintetizatzea eta kritikoki aztertzea.
3. Ikerkuntzarekin, aholkularitza teknikoarekin eta irakaskuntzarekin lotutako arazoei aurre egiteko bideak adostea, aurkeztea eta argudiak, elkarlana baliatuta.
4. Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea (bereziki Interneten eskuragarri daudenak), askotariko komunikazio-egoeretan sor daitezkeen premiei egokiro erantzuteko mailan.
5. Zientzia arloko gaiak komunikatzea, komunikazio-testuinguruaren eskakizunak aintzat hartuta: dibulgazio-hitzaldiak, klase magistralak, kongresuetarako komunikazioak, hitzaldietarako euskarri idatzia, poster zientifikoak...
6. Norberaren intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatu, azaldu eta berrikustea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**EGITARAU TEORIKOA**

1. GAIA: Hizkuntzen kudeaketa ingurune akademiko eta profesional eleaniztunean
 - 1.1. Hizkuntza-eskubideak eta hizkuntza gutxituak
 - 1.2. Hizkuntza gutxituak eta hizkuntza-plangintza
 - 1.3. Euskararen normalizazio-plangintza
 - 1.4. Hizkuntza-ukipena, mailegutza, kalkoak eta hizkuntza-mendekotasuna
 - 1.5. Termino-sorkuntzarako bideoak eta hizkuntza-ukipena
 - 1.6. Hizkuntzen kudeaketarako praktika onak testuinguru akademiko eta profesional eleaniztunean
2. GAIA: Hizkuntza-aldaerak eta hiztunen erreperitorio linguistikoa
 - 2.1. Hizkuntza-aldaerak: aldaera geografikoak vs aldaera funtzionalak

- 2.2. Idatzizko eta ahozko testuen alderaketa
- 2.3. Ortografia eta ortotipografia
- 2.4. Puntuazioa eta prosodia
- 2.5. Aldakortasuna ahozko erregistroetan
- 2.6. Hiztunen errepertorio linguistikoa eta komunikazio formala
- 2.7. Euskara Batuaren Ahoskera zaindua

3. GAIA: Ahozko diskurtso-estrategiak

- 3.1. Ahozko komunikazio akademikoa
- 3.2. Hiztegi eta fraseologia akademikoa: terminoak, kolokazioak eta diskurtso-formulak
- 3.3. Pertsuasioa komunikazio akademiko eta profesional multimodalean
- 3.4. Baliabide erretorikoak: galdera erretorikoak, errepikapena, adibidegintza, birformulazioa
- 3.5. Baliabide fonikoak: etenak, intonazioa
- 3.6. Baliabide ez-berbala

4. GAIA: Euskararen lantze funtzionala alor akademikoan

- 4.1. Hizkuntza gutxituen biziberritzea: terminologia eta fraseologia espezializatua
- 4.2. Euskararen erregistro akademikoaren garapena
- 4.3. Aldakortasuna hizkuntza garatuetan eta normalizazio bidean dauden hizkuntzetan
- 4.4. Hizkuntza-baliabide espezializatuen ezarpena adituen diskurtsoetan

EGITARAU PRAKTIKOA

Ordenagailu-gelako praktiketan lau proiektu eramango dira aurrera.

- A. proiektua: Euskararen normalizazioari buruzko eztabaida eta iritzi-artikulua.
- B. proiektua: Ahoskera zaindua identifikatzea, eta ahoz gorako irakurketan erabiltzea.
- C. proiektua: Helburu didaktikoetarako ahozko komunikazioa: klase magistrala eta bideo tutoriala.
- D. proiektua: Komunikazio akademiko espezializatua: GrAren laburpena, defentsa eta dibulgazio-hitzaldia.

METODOLOGIA

Eskola eta jarduera gehienak praktikoak izango dira, eta, ahal dela, informatika-gelan egingo dira. Horretarako, eGela erabiliko da.

- Banakako lanak
- Talde-lanak
- Ordenagailu-praktikak
- Eskola teorikoak (arriketetan jorraturiko arazo eta egiturak azaltzeko)
- Ahozko aurkezpenak

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		15		30				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	22,5		22,5		45				

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ikus ohiko deialdirako eta ezohiko deialdirako orientazioak % 100

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaiaren ebaluazioa jarraitua izango da. Ebaluazio jarraituak eskatzen du saio guztietara bertaratzea eta zeregin guztiak garaiz entregatzea. Ebaluazio jarraitua egiten hasi eta alde batera uztea erabakitzen duten ikasleek edo hasieratik bukaerako azterketaren bidez bakarrik ebaluatuak izatea aukeratzen duten ikasleek bukaerako azterketa egiteko eskubidea dute (puntuazioaren % 100). Eskubide hori gauzatu ahal izateko, ikasleak ebaluazio jarraituari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat helarazi behar dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, lauhilekoaren hasierako 9 astean barruan (16-24 asteetan).

Halako idatzirik bidali ezean, ebaluazio jarraiturako aurkeztutako zereginak kalifikatuko dira.

UPV/EHUko Ebaluaziorako Arautegiko 12.2 artikulua arabera, azken probaren pisua irakasgaiako kalifikazioaren % 40

edo txikiagoa bada, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino gutxienez hilabete lehenago eskaria egin beharko dute deialdiari uko egiteko. Eskari hori, idatziz, irakasgaiaren ardura duen irakasleari aurkeztu beharko zaio. Hori horrela, deialdiari uko egiten dioten ikasleek «AURKEZTEKE» kalifikazioa jasoko dute aktan; deialdiari uko egiten ez dioten ikasleek, azken probara aurkezten ez badira, aktan «GUTXIEGI» kalifikazioa izango dute (zenbakizko kalifikazioa: 0).

Ebaluazio jarraiturako tresnak hauek izango dira:

PORTFOLIOA % 30
AHOZKO AURKEZPENAK % 50
GALDETEGIAK % 20

EBALUAZIO EZ-JARRAITUA:

Ebaluazio ez-jarraiturako orientazioak ezohiko deialdirako zehaztutako berberak dira.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian, baita ebaluazio ez-jarraituan ere, irakasgai osoa edo gehiena azterketa bidez ebaluatuko da. Azterketa ordenagailu-gelan egingo da, hizkuntza-tresna elektronikoekin lotutako gaitasunak ebaluatu ahal izateko. Ahozkoa ere ebaluatuko da. Horretarako, azterketa egunean, idatzia bukatu ondoren, 10 minutuko ahozko aurkezpena egingo dute azterketara aurkezten diren ikasleek ordenagailu-gelan bertan. Aurkezpena egiteko diapositibak prest ekarri beharko dituzte azterketa egiten duten ikasleek.

Bukaerako proban erabiliko diren tresnak hauek izango dira:

TEST MOTAKO PROBA % 20
ARIKETA PRAKTIKOAK % 15
IDAZLANA % 15
AHOZKO AURKEZPENA %50

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak eGelan jarritako materialak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

EZEIZA, J; ALDEZABAL, I., ELORDUI, A., ZABALA, I., UGARTEBURU, I., ELOSEGI, K. (2010) PREST: Unibertsitateko komunikazio-gaitasunen eskuliburua. EHuko Euskara Errektoreordetzaren sareko argitalpena:

<http://testubiltegia.ehu.es/Prest-komunikazio-gidaliburua>

ETXEBARRIA, J.R. (2011) Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak. EIMArek estilo-liburua ETXEBARRIA, J.R. (2014) Komunikazioa euskaraz ingeniariaritzan. Bilbo. EHU eta UEU

EUSKALTZAINDIA (2018) Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE).

EUSKALTZAINDIA "Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua" (Euskaltzaindiaren 87 araua)

EUSKALTZAINDIA "Adierazpena euskalkien erabileraz: irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan"

(Euskaltzaindiaren 137 araua) Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordea "Ahoskerak axola du"

Gehiago sakontzeko bibliografia

ALVARADO CANTERO, L. (2017) "Géneros académicos orales: Estructura y estrategias de la exposición académica" Revista Nebrija de Lingüística Aplicada a la Enseñanza de las Lenguas.

ALCOBA, S. (1999) La oralización. Barcelona: Ariel Practicum.

BONDI, M. eta LORÉS, R. (ed.) (2014) Abstracts in Academic Discourse. Berna: Peter Lang

CASTELLÓ, M. (koord.) (2007) Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos. Conocimientos y estrategias. Crítica y fundamentos. Barcelona: Graó

EUSKALTZAINDIA.1986. Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak

EUSKALTZAINDIA (1992) Hitz elkartuen osaera eta idazkera

GOTI, M. (ed.) (2012) Academic Identity Traits. Berna: Peter Lang

GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (2003) Aproximaciones al lenguaje de la ciencia. Burgos: Fundación Instituto Castellano y Leonés de la Lengua. Colección Beltenebros.

ITURBE, J. eta TXURRUKA, J.M. (2020) Amets bikoitza. Euskara zientifikotzen eta zientzia euskaratzen. EHuko

Argitalpen Zerbitzua.

KAUR, K., AFIDA, M.A. (2018) "Exploring the Genre of Academic Oral Presentations: A Critical Review" International Journal of Applied Linguistics & English Literature. Vol.7, 1

UZEI. 1982. Maileguzko hitzak: ebakera eta idazkera

VALEIRAS, J., RUIZ, M.N., JACOBS, G. (2018) "Revisiting persuasion in oral academic and professional genres: Towards a methodological framework for Multimodal Discourse Analysis of research dissemination talks" Ibérica: Revista de la Asociación Europea de Lenguas para Fines Específicos (AELFE), Nº. 35: 93-118

VÁZQUEZ, G. (2001) El discurso académico oral. Guía didáctica para la comprensión auditiva y visual de clases magistrales. Madrid: ADIEU.

YOUNG, K.S. eta TRAVIS, H. P. (2018) Oral communication: skills, choices, and consequences. Illinois: Waveland press. (4. argitalpena, 1. argitalpena 2012)

ZUAZO, K. (2005) Euskara batua. Ezina ekinez egina. Elkar.

ZUAZO, K. (2008) Euskalkiak euskararen dialektoak. Elkar.

Aldizkariak

Elhuyar aldizkaria

<http://aldizkaria.elhuyar.eus/>

Ekaia. Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Aldizkaria <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ekaia>

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.euskaltzaindia.eus/>

<http://www.hiztegia.net/>

<http://hiztegiak.elhuyar.eus/>

http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/kontsultak/

<http://ehu.eus/ehg/zehazki/>

<http://www.euskara.euskadi.eus>

<http://www.ei.ehu.es>

<http://www.elhuyar.eus/>

<https://www.ehu.es/eu/web/euskara/ehulku-aurkibidea/>

<http://ehuskaratuak.ehu.eus/kontsulta/>

http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.eus/p267-http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/eu <http://31eskutik.eizie.eus/>

<http://www.erabili.eus/>

<http://gaika.ehu.eus/eu>

<https://zientziakaiera.eus/>

<http://teknopolis.elhuyar.eus/?lang=eu>

<https://ahotsak.eus/>

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztu gabea

Plana GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztu gabea

IRAKASGAIA

26820 - Animalien Ingurumen Fisiologia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Animalien Ingurumen-Fisiologia ikasgaia Animalien Fisiologiako espezialitate bat da. Ingurumenaren aldagarritasunak (batez ere aldagarri abiotikoena) animalien antolaketa funtzionalean daukan eragina eta animaliek garatzen dituzten konpentsazio-erantzunak dira ikasgai honen aztergaiak. Mekanismo fisiologikoen azterketarako beharrezkoa da jakintza-arlo anitzetako integrazioa. Biologia graduako 3. kurtsoko animalien fisiologiako bi irakasgaiak: a) Animalien Fisiologiaren Oinarriak eta b) Animalien Sistemen Fisiologia, aldeztu aurretik eginda izatea erabat beharrezkoa da. Bestalde, Biokimika eta Biologia molekularra, Zitologia, Zoologia eta Genetika arloetatik eratorritako informazioa funtsezkoa da animalien ingurumen fisiologiak animalia-populazioen portaera eta ekosistemen funtzionamendua ulertzeko. Akuakulturaren edo animalia-ekoizpenaren, itsas ikerketaren edo animalien ekotoxikologiaren esparruko lan-irteerei aurre egiteko beharrezko ezagutzak eta tresnak eskaintzen ditu irakasgai honek.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

C1. Animalien portaera eta ingurunerako moldapen funtzionalen izaera aztertzea.

C2. Animalien funtzioen erregulazioan inplikaturako printzipio eta mekanismo fisiologikoak, zelularrak eta molekularrak integratzea.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

C3. Behaketetatik eta neurrietatik datozen datuak prozesatzea eta interpretatzea, azalpen-ereduen arabera.

C4. Txosten zientifiko-teknikoak egitea eta idaztea.

IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

R1. Idatzizko komunikazio espezializatuan egiturak eta arauak erabiltzen ditu dokumentu akademikoak eta/edo zientifikoak egiteko, bai hizkuntza ofizialetan, bai atzerriko hizkuntzetan.

R2. Datu esperimentaletan oinarritutako dedukzioa erabiltzen du erantzun fisiologiko konplexuen deskribapen holistikoak egiteko (erregulazioa edo komunztadura; erantzun akutua edo kronikoa).

R3. Ingurumen-baldintzak animalien fisiologian duten eraginari buruz argudiatzen du (tenperatura, arnas-gasen eta, ur eta elektrolitoen eskuragarritasuna).

R4. Esperimentuetatik lorturiko ondorioztaketak literatura zientifikoarekin kritikoki alderatzea ondorio orokorrak erakiz.

R5. Aseribitatez defendatzen ditu bere esperientziak eta eskuratutako ezagutzak, hizkuntza zientifiko-teknikoa erabiliz.

R6. Proposatutako ekintza zientifiko-teknikoek ezagutza-arloko ingurumen-arazo espezifiko baten aurrean gizartean eta ingurumenean duten eraginari buruz argudiatzen du.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**SARRERA OROKORRA**

Animalien ingurumen-fisiologiaren definizioa. Ingurumen faktoreak eta sistema biologikoengan dituzten efektuak. Ingurumen-estresa. Tolerantzia tarteak eta hiltze-mugak. Aklimatazioaren efektuak. Adaptazioa. Tolerantzia tartean emandako erantzun konpentsatorioak. Optimo fisiologikoa. Komunztagarritasuna eta erregulazioa. Homeostasia eta Homeozinesia. Estresaren ebaluaziorako irizpideak eta estresaren ondorioak. Metabolismoa erantzun fisiologikoaren integratzaile gisa. Energia metabolikoaren ekoizpena eta erabilera. Tasa metaboliko basala, hazkuntzaren eta aktibitatearen kostuak. Tamainaren eta aktibitatearen efektuak. "Dynamic Energy Budget"-aren teoria.

OXIGENO-GERTUTASUNA

Arnas-medioa eta oxigeno-gertutasuna: ura eta airea. Hipoxia eta anoxia. Oxikomunztagarriak eta oxierreguladoreak. Mekanismo oxierregulatzaileak. Arnas pigmentuak eta oxierregulazioan jotzen duten papera. Disoziazio-kurbak. Hipoxiari eta anoxiari emandako erantzun metabolikoak. Anaerobiosi funtzionala eta ingurumen anaerobiosia.

TENPERATURA

Aldaketa termikoari emandako erantzuna. Tenperatura eta tasa metabolikoa. Homeotermia eta Poikilotermia. Tolerantzia termikoa eta konpentsazio termikoa. Aklimatazio termikoaren mekanismo molekularrak: entzima-kontzentrazioaren aldaketa, isoentzimen sintesia eta adaptazio homeobioskoak. Endotermia eta Ektotermia. Orea termikoa eta erregulazio termikoaren mekanismoak homeotermotan. Alde-termoneutroa. Tenperaturaren erregulaziorako sistema integratua

URA ETA ELEKTROLITOAK

Harreman osmotikoak. Eurihalinitatea eta estenohalinitatea. Osmokomunztagarrien erantzun osmotikoak. Erregulazio osmotikoaren mekanismo orokorrak. Erregulazio osmotikoa eta ur-balantzea animalia lehortarretan. Hondar

nitrogenodunen irazpena eta ur-ekonomia.

LABORATEGIKO PRAKTIKEN PROGRAMA:

Laborategiko praktikak hainbat saiotan egingo dira hainbat astetan zehar, eta 15 orduko iraupena izango dute guztira.

Praktiken gai zerrenda:

- Poikilotermoaren metabolismoaren aklimatazio termikoa.
- Organismo urtarren oxierregulazio-maila neurtzeko erabil daitezkeen parametroen azterketa.
- Ornogabe itsastar osmokonuntzarrien bolumen zelularren eraenketa isosmotikoa.

METODOLOGIA

Programa garatzeko hurrengo metodologia erabiliko da:

1.- Animalien Ingurumen Fisiologiaren oinarritzko kontzeptuak eta metabolismoa direlako gaiak eskola magistralen bidez emango dira (M).

2.- Ingurumen aldagarrien azterketarako (hau da, oxigenoa, temperatura eta ura eta elektrolitoen ekonomia) ERAGIKETEN EBAZPENAREN BIDEZKO IKASKETA deritzon metodologia erabiliko da. Aldagarri bakoitzaren azterketarako datu esperimental multzo batekin lan egingo da. Datu horiek azterketa kasu bat, "CASE STUDY", osatzen dute. Azterketa kasu bakoitzaren lanketa hurrengo modu honetan burutuko da:

A.- Aurkezten diren oinarritzko ideien lanketa: erantzun fisiologikoen natura zein den, eta parametro eta indize fisiologikoen arteko harreman funtzionalak nolakoak diren aztertuko da. Azterketa kasu bakoitzarekin eskola magistral bidez burutuko dira (M).

B.- Informazio bibliografikoen araketa. Aztertzen ari den kasuarentzat garrantzitsua den informazio lagungarriaren bilaketa. Aktibitate hau ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren bidez burutuko da.

C.- Datu esperimentalen tratamendu matematikoa eta grafikoak eraikiko dituzte kalkulu-orriak erabiliz. Aktibitate hau gelako praktiken (GA) bidez eta ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren bidez burutuko da.

D.- Tratamendu horietan inplikaturako harreman funtzionalen aurkezpena eta eztabaida egingo da, irakasleak zuzendutako ikasgelako saioetan (gela praktiketan, GA).

E.- Artikulu zientifiko egitura duen txosten idatzia egingo dute ikasleak, talde murriztuetan (ikasgelaz kanpoko jarduerak). Irakasleak txostenaren ebaluazioa, zuzenketa eta, ondoren, horien beerielikadura egingo du. Azkenik, egindako lanaren defentsa mintegi-saioetan (S) egingo da.

3.- Laborategiko praktiketan (GL) hainbat parametro fisiologikoen neurketa esperimentala egingo da, animaliak baldintza esperimental sinpleetan egokituz (tenperatura-aldaketak, uraren gazitasuna edo oxigeno-eskuragarritasunaren-aldaketak) eta lortutako datuen tratamendua egingo dute ordenagailuaren bidez. Esperimentu multzo horien banakako txostena egin behar da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	35	4	6	15					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	53	10	12	15					

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoa

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 50
- Banakako lanak % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintotasunez eta portaera etikoaz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere, adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik

berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

Laborategiko praktikak egitea beharrezkoa izango da beste atalen ebaluazioa egiteko, bai ebaluazio jarraian edota azken-ebaluazio modalitatean. Mintegi-saioetan partehartzea beharrezkoa izango da ebaluazio jarraian.

Irakasgaiaren ebaluazioak hurrengo atalak izango ditu:

Edukien froga idatzia: %50

Laborategiko praktiken banaka egindako txostena: %10

Taldean egindako ikerketa kasuen txostena: %40

Irakasgaia gainditzeko idatzizko froga aurkeztea beharrezkoa da, baita gutxieneko frogako nota 10tik 4 ateratzea izango da. Azterketaren egitura hurrengo haxe izango da: galdera laburrak, galdera luzeak eta ariketak. Ez da azterketa partzialik egingo.

Ebaluazio jarraituari uko egiteko eta araudiaren arabera, eskolen lehen 9 asteak baino lehenago, irakasleei idazki bat bidali behar zaie azalpenekin. Hala ere, irakaskuntza-jardueren antolaketa dela eta, ebaluazio jarraituari uko egiteko nahia, lehen 5 asteak pasatu aurretik egitea gomendatzen da.

azken-Ebaluazio sisteman froga idatziren bidez ebaluatzen da, non ezagutza teorikori buruzko galdera laburrak eta ariketak ebaztea eskatzen den (notaren %90), horretaz gain laborategiko praktikei buruzko galderak ere izango ditu (notaren %10).

Azken frogara ez aurkezteak ebaluazio deialdiari uko egitea erakarriko du eta Ez Aurkeztua bezala agertuko da.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Bakarrik baimentzen da kalkulagailua eramatea. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian, azken azterketaren izaera eta ebaluazio-sistema, ohiko deialdian erabili direnak bezalakoak izango dira. Ikerketa kasuetan eta praktika txostenaren ebaluazioan lorturiko kalifikazioak mantenduko dira.

Froga honetara ez aurkezteak ebaluazio deialdiari uko egitea erakarriko du eta Ez Aurkeztua bezala agertuko da.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Bakarrik baimentzen da kalkulagailua eramatea. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

EXCEL programa daukan ordenagailua. Kalkulagailua.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

HILL, R.W., WISE, G.A. & ANDERSON, M., 2006. Fisiología Animal. Harper & Row Publishers, N.Y.

RANDALL, D., BURGGREM, W. & FRENCH, K., 2002. ECKERT Animal Physiology. Mechanisms and adaptations. 5th ed. Freeman & Co.

SCHMIDT-NIELSEN, K. 1997. Animal physiology. Adaptation to environment, 5th Ed. Cambridge University Press. London.

SOMERO, G.N, LOCKWOOD B.L, TOMAMEK L., 2017. Biochemical adaptation: Response to Environmental Challenges from Life's Origins to the Anthropocene. Sinauer Associates, Inc.

WILLMER, P., STONE, G. & FRENCH, K. 2005. Environmental physiology of animals. 2nd ed. Blackwell

Gehiago sakontzeko bibliografia

BLAKE, R. W. (Ed.) (1991). "Efficiency and economy in animal physiology" Cambridge University Press, Cambridge.

HOCHACHKA, P.W. & SOMERO, G.N. 2002. Biochemical adaptation. Mechanisms and processes in biochemical evolution. Oxford University Press.

KOOIJMAN, S. A. L. M. (1993). "Dynamic energy budgets in biological systems". Cambridge Univ. Press

LOUW, G. 1993. Physiological Animal Ecology.

Mc NAB, B.K. 2002. The physiological ecology of vertebrates. A view from energetic. Longman

PROSSER, C.L. (ed.) (1991). "Comparative animal physiology". Wiley, Nueva York.

Aldizkariak

ANNUAL REVIEW OF PHYSIOLOGY.
COMPARATIVE BIOCHEMISTRY AND PHYSIOLOGY.
JOURNAL OF PHYSIOLOGY.
JOURNAL OF PHYSIOLOGY AND BIOCHEMISTRY.
REGULATORY INTEGRATIVE AND COMPARATIVE PHYSIOLOGY.
PHYSIOLOGICAL AND BIOCHEMICAL ZOOLOGY.
PHYSIOLOGICAL REVIEWS.
MARINE AND FRESHWATER BEHAVIOUR AND PHYSIOLOGY.
JOURNAL OF COMPARATIVE PHYSIOLOGY.
INTEGRATIVE AND COMPARATIVE PHYSIOLOGY.
JOURNAL OF EXPERIMENTAL MARINE BIOLOGY AND ECOLOGY.
JOURNAL OF PHYSIOLOGY LONDON.
JOURNAL OF APPLIED PHYSIOLOGY.
JOURNAL OF EXPERIMENTAL ZOOLOGY.

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

26814 - Antropogenetika

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Antropogenetika (26814) Biologiako Graduoko hautazko irakasgaia, Zientzia eta Teknologia Fakultateko Biologiako Graduoko 3. eta 4. mailetan ikasi daiteke (6 ECTS).

Nahiz eta inolako aurrebaldintza administratiborik ez dagoen irakasgai honetan matrikulatzeko, ikasleak Antropologia Fisikoa irakasgaia gainditua edukitzea gomendagarria da (Biologiako Graduoko 3. maila).

Irakasgai hau Espezializazio Moduluan kokatua dago eta egingo den lanaren ondorioz, ikasleak giza populazioen aldakortasun genetikoan sakonduko du, eta erabilerarik garrantzitsuenak praktikan jarriko ditu, hala nola, populazioen arteko desberdintasun genetikoetan oinarriturik beraien historia berreraikitzea, gaixotasunen oinarri genetikoak identifikatzea edo auzitegi genetikoak kasuak ebazten ikastea. Irakasgaiaren zehar, askotariko prestakuntza-baliabideak erabiltzen dira, eta horiei esker, ikaskuntza autonomoa sustatzen da, gaiarekiko interesa pizten da, lan kooperatiboan banakoen erantzukizuna lantzen da, ahozko eta idatzizko komunikaziorako gaitasuna garatzen da eta pentsamendu kritikoa eta arrazoitzea akuilatzen dira.

Biologiako Graduaren, irakasgai hau Zelulen Biologia, Molekularra eta Genetika espezialitatean sartzen da ere, eta horrela, espezialitate horretako beste hautazko irakasgaietan ere matrikulatzea gomendagarria da. Gure espezialean jatorrian sakontzen duen Giza Eboluzioa (26809) hautazko irakasgaiaren matrikulatzea ere gomendatzen da.

Irakasgai hau Biologiako Graduoko ikasle guztientzat interesgarria den arren, bereziki garrantzitsua da hurrengo arloetan lan egin nahi duten ikasleentzat: Biomedikuntza (gaixotasun genetikoaren diagnostikoa, aholku genetikoa, terapia pertsonalizatuak), auzitegi analisia (aztarnen identifikazioa, aitasun testak) edo ikerkuntza Giza Biologian.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Gaitasun espezifikoak:

1. Gure espezialean eboluzioari datzekien prozesuak ulertzeko dauden ezaugarrien transmisio mekanismoen ezagumenduen jabetzeaz azpimarra jartzea.
2. DNA isolatzea eta analizatzea, eta diagnostiko genetikoak eta molekularrak egitea.
3. Giza aldakortasun genetikoak ikasteko erabilgarriak diren teknologien eta metodo estatistikoaren ezagutza sakontzea.
4. Ikuspuntu kualitatibo zein kuantitatibo batetik egungo giza aldakortasun genetikoaren ezagutza sakontzea, kausak eta mugak mikroebolutibo nagusiak ezagututa.

Zeharkako gaitasunak:

1. Gaitasun profesionalen arloko proiektuen zuzendaritzan, idazketan eta betetzean, eta komunitate zientifikoari eta gizarteari komunikazioan aurrera egitea.
2. Analisi, sintesi, antolaketa eta planifikazio ahalmenaren garapenean azpimarra jartzea. Horrek, erabakiak hartzea eta informazioaren lantzea eta transmisioa baimenduko du.
3. Pertsonen arteko erlazioekin loturiko trebetasunen garapena biribildu, talde-lana faboratzeko. Arrazoiak kritikoa eta gizartearen balioekiko konpromiso etikoa aurrera egitea.

Irakaskuntza emaitzak:

1. Markatzaile genetiko mota desberdinak ezagutzen ditu eta mekanismo ebolutiboak eta giza espezialean eboluzioaren mekanismo bakoitzak duen efektu bereizgarria ulertzen du.
2. Populazioen arteko desberdintzapen maila neurtzeko eta emaitza ulertzeko gai da.
3. DNA lagin batetik informazioa lortzea baimentzen duten laborategiko prozesuak eta metodoak aurrera eramateko gai da.
4. Aitasunen eta identifikazio indibidualen diagnostiko genetikoak egiteko gai da.
5. Giza populazioen jatorriaren ezagutza teknologia genetiko berrien emaitzak zelan erabiltzen diren ulertzen du.
6. Algoritmo egokiak hautatuz analisi filogenetikoak egiten eta interpretatzen ditu.
7. Informazio genetikoak eta beste jakintza arloetatik datorren informazioa bateratzeko gai da; horrela giza dibertsitate genetikoaren jatorriaren eta planetaren giza populamenduaren inguruko ondorioak ateratzeko.
8. Demografi trantsizioek giza populazioen dibertsitate mailan eta egungo osaketan izan duten eragina ezagutzen du.
9. Egungo giza aldakortasun genetikoak eta kulturala sakonki ezagutzen du.
10. Lortutako emaitzak modu zientifikoan komunikatzeko gai da.
11. Ikerketa proiektu labur bat aurrera eramateko gai da, antolaketa, planifikazioa, analisia eta sintesia barne.
12. Beste gelakideen emaitzak eta ondorioak modu kritikoan arrazoitzeko gai da.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

PROGRAMA TEORIKOA

I. Aldakortasun genetikoa

1. Antropogenetika. Antropogenetikaren definizioa. Antropogenetika, Etika eta Bioestatistika. Jatorri genetikoa duen aldakortasuna: Markatzaile genetikoak, maiztasun alelikoak eta haplotipikoak. Polimorfismoa.
2. Markatzaile genetikoak. DNAREN erauzketa eta kuantifikazioa. Errestrikzio entzimak. PCR. Sekuentziazioa. RFLPak. VNTRak. Geneak eta polimorfismo klasikoak. Alu tartekapenak. SNPak. Mitokondrioko DNA.
3. Datu-iturriak Antropogenetikan. Giza Genomaren datu-baseak. Maiztasunen eta sekuentzien datu-baseak. Datu linguistikoak, arkeologikoak eta paleontologikoak.
4. Datu-prozesamendua Antropogenetikan. Hardy-Weinberg orekaren legea. Antzekotasun genetikoa. Antzekotasunaren analisi estatistikoa: KFA, MDS, Dendrogramak. Bootstrap. Geografia eta geneak: Klinak, Mapa sintetikoak, Mantel testa, AMOVA. Beste batzuk: Zentroidearen metodoa, Mestizajea, Sare filogenetikoak, Auzitegi-Genetika, Datu-meatzaritza. Antropogenetikan interesgarriak diren programak.

II. Aldakortasunaren jatorria

5. Evaren garaia. Out of Africa: Migrazio-prozesu nagusiak (fossilak ulertzen eta markatzaile genetikoak kontuan izanda). Gizadia Afrikako hegoaldean sortu al zen? Mikrodiesberdintze-prozesuak. Beste historia bat posible al da?
6. Neolitoa. Ehiztari-biltzaileak. Aldaketa klimatiko bat eta aldaketa kultural bat. Kultura neolitikoen jatorria eta hedapena. Lehen demografi trantsizioa.
7. Isolatuen haustura. Industria-iraultza. Bigarren demografi trantsizioa. Trantsizio epidemiologikoa. Odolkidetasuna eta gaixotasun errezesiboak.
8. Aldakortasun genetikoa eta kulturaren aldakortasuna. Gizaki modernoaren jatorriaren gaineko beste ebidentzia batzuk. Out of Africa eta kraniometria. *Helicobacter pylori*-ren dibertsitate genetikoa. Hizkuntz ondarearen dibertsitatea.

III. Giza populazioen aldakortasun genetikoa

9. Giza aldakortasun genetikoaren kuantifikazioa. Espezieak, subespezieak, arrazak, populazioak, Populazioen barneko eta arteko aldakortasuna. Larruazalaren kolorea.
10. Aldakortasun genetikoa Afrikan. Aldakortasun genetikoa Afrikan: Eduki zuenak, mantendu du. Khoisanidoak. Pigmeoak. Bantuak. Beste Niger-Kongo herriak. Nilo Sahararrak. Afrikako ekialdea.
11. Aldakortasun genetikoa Ekialdeko Eurasian. Kontinente zabal eta heterogeneoa. Lehen nabigatzaileak. Neolitoaren eragina Asiako populaketan. Austroasiarrak. Tai Kadai. Hmong mien. Sinotibetarrak. Altaitarrak. Japoniako populaketa. Indoeuroparrak. Dravidak. Austronesiarrak. Afroasiarrak. Aldakortasun genetikoa Asian.
12. Aldakortasun genetikoa Mendebaldeko Eurasian. Ekialde Hurbila eta Ipar Afrika. Berbereak. Europa. Gizaki modernoaren sarrera Europan. Azken maximo glaziarra. Glaziazio osteko birkolonizazioa. Neolitoa. Euskaldunen jatorria.
13. Aldakortasun genetikoa Australian eta Ozeanian. Dibertsitate etnikoa. Migrazio-fluxu nagusiak. Bakterio baten ikuspuntua. Hizkuntzalaritzaren ikuspuntua. Lapita kultura.
14. Aldakortasun genetikoa Amerikan. Aldakortasun etnikoa eta genetikoa Amerikan. Beringia. Amerikako populaketa. Amerikako indigenen jatorria.
15. Etorkizunari begira. Farmakogenomika eta farmakogenetika. Kultura eta genomaren arteko elkarrekintza. Aldakortasun genetikoaren eta kulturalaren galtzea.

PROGRAMA PRAKTIKOA

I. Analisi genetikoak

1. Polimerasaren kate-erreakzioa (PCR). Map Tau Indela.
2. Polimerasaren kate-erreakzioa (PCR). Laktasa-aktibitatearen iraunkortasuna.

3. Elektroforesia.
4. Anplifikaturiko DNAREN purifikazioa.
- II. Analisi estatistikoak
5. Datu-baseak eta datuen tratamendua I (Heterogeneitate genetikoak)
6. Datuen tratamendua II: Azpipopulazioen analisia.
7. Datuen meatzaritza I
8. Datuen meatzaritza II

METODOLOGIA

Irakasgaiak eskola mota ezberdinak ditu. Eskola magistraletan (M) kontzeptu teorikoak jorratzen dira. Laborategiko praktikan (GL) analisi genetiko ezberdinak jartzen dira praktikan, horiek sortu ditzaketen arazoekin, eta analisi estatistiko ezberdinak lantzen dira taldeka, emaitzen ulermenean batez ere oinarritzen direlarik. Lauhilekoan zehar, ikasleek astero jartzen diren ariketak ebazten joan beharko dira, betiere zuzenduriko irakaskuntza eta feedbacka erabilita. Baita ere, PBL jarduera baten bitartez, aitatasun froga bat ebatzi behar dute taldeka. Azkenik, mintegietan, ikasleak lan original bat sortu behar du, gelan aurkeztu eta eztabaidatuko dena. Horretarako, datu-baseetatik informazioa lortu beharko du, analisi estatistiko hautatu beharko ditu eta emaitzak kritikoki aztertu beharko ditu, ondorio egokiak ateratzeko. Atal hau ere taldeko lanaren eta ikaskuntza gidatuaren bitartez egingo dute. Irakasle taldea erabat koordinatuta dago egiten diren jarduerak motei eta jardueren ordutegiei dagokienez, bai irakasgai beraren taldeen artean, bai ikasturte bereko irakasgaien artean ere.

Tutoretzak

Tutoretzak irakaslearen bulegoan (F1.S1.10) izango dira. Ordutegiak GAUREn grabaturik daude.

Praktikak

Praktika-laborategia: 0.40

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	35	5		20					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	52,5	7,5		30					

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 55
- Test motatako proba % 10
- Ahozko defentsa % 10
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 5
- Rol jokoa % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoak jokatzearen konpromisoa adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berriaz baimenduta ez dagoeneko. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

Ebaluazio jarraituaren sistemak, bai taldean, bai bakarka egindako prestakuntza-jarduera desberdinen ebaluazioa barneratzen du eta baita ere, azken azterketa bat.

1) Ebaluazio jarraituak hurrengo jarduerak barneratzen ditu:

- Dibertsitate genetikoaren proiektua (% 10), ahozko defentsarekin.
- Aitatasun frogaren (10). PBL motako jarduerak (% 5 txostena eta % 5 gelan egiteko ariketa)
- AntropoRoi jokoa (% 10).
- Asteroko galderak (% 5): ikasturtean zehar zenbait ariketa proposaturiko dira.

Ebaluazio jarraituari uko egiteko eta araudiaren arabera, eskolen lehen 9 asteak baino lehenago, irakasleei idazki bat bidali behar zaie azalpenekin. Hala ere, irakaskuntza-jardueren antolaketa dela eta, ebaluazio jarraituari uko egiteko nahia, lehen 3 asteak pasatu aurretik egitea gomendatzen da. Posible da ebaluazio jarraituan dauden jarduerak batzuei bakarrik uko egitea.

2) Azken frogaren ebaluazioak irakasgaiaren nota osoaren % 65 balioko du eta ondoko atalak edukiko ditu: Testgalderak, galdera laburrak, ariketak eta garatzeko galdera luzeak.

Irakasgaia gainditzeko beharrezkoa den gutxieneko nota azterketan: 4/10. Ez da azterketa partzialik egingo.

Azken frogara ez aurkezteak ebaluazio deialdiari uko egitea erakarriko du eta Ez Aurkeztua bezala agertuko da.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Bakarrik baimentzen da kalkulagailua eramatea. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian, azken azterketaren izaera eta ebaluazio-sistema, ohiko deialdian erabili direnak bezalakoak izango dira.

Ikasturtean zehar ebaluazio jarraituan ikasleek lortu dituzten emaitza positiboak mantenduko dira. Ebaluazio jarraituan emaitza negatiboa egotekotan, azken frogaren honek irakasgaiaren ebaluazioaren %100a balioko du.

Froga honetara ez aurkezteak ebaluazio deialdiari uko egitea erakarriko du eta Ez Aurkeztua bezala agertuko da.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Bakarrik baimentzen da kalkulagailua eramatea. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Laborategiko praktiketara mantala eramatea derrigorrezkoa da.

BIBLIOGRAFIA

Oinarritzko bibliografia

- Cavalli-Sforza LL, Menozzi P, Piazza A (1994). The History and Geography of Human Genes. Princeton University Press, Princeton.
- Crawford MH (2006) Anthropological Genetics: Theory, Methods and Applications. Cambridge University Press, New York.
- Jobling MA, Hollox E, Hurles M, Kivisild T, Tyler-Smith C (2013). Human Evolutionary Genetics: Origins, Peoples and Disease. Garland Science, New York.
- Knight JC (2009) Human Genetic Diversity: Functional Consequences for Health and Disease. Oxford University Press, USA
- Mielke JH, Konigsberg LW, Relethford JH (2010) Human Biological Variation. Oxford University Press
- Muehlenbein MP (Editor) (2010) Human Evolutionary Biology. Cambridge University Press, New York.
- Pääbo S (2015). Neanderthal Man: In Search of Lost Genomes. Basic Books, New York
- Relethford JH (2001). Genetics and the search for modern human origins. Wiley-Liss. New York.
- Relethford JH (2003). Reflections of Our Past: How Human History is Revealed in Our Genes. Westview Press, Perseus Books Group, Oxford.
- Relethford JH (2012). Human Population Genetics. Wiley-Blackwell, New Jersey.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Ikasgai bakoitzean sakontzeko garrantzitsuak diren artikuluko zientifikoak emango dira.

Aldizkariak

Nature
Nature Genetics
Science
Proceedings of the National Academy of Sciences USA
American Journal of Human Genetics
European Journal of Human Genetics
American Journal of Physical Anthropology
American Journal of Human Biology
Annals of Human Biology
Human Biology
Journal of biosocial Science
Antropo

Interneteko helbide interesgarriak

Datu-baseak:

1000 Genomes: <http://www.1000genomes.org/>
NCBI: <http://www.ncbi.nlm.nih.gov/genome/guide/human/>
Alfred: <http://alfred.med.yale.edu/alfred/>
Ethnologue: <http://www.ethnologue.com/>

Programak:

Past: <http://folk.uio.no/ohammer/past/>
GeDis: <http://www.ehu.es/~ggppegaj/javaes.html>
Arlequin: <http://cmpg.unibe.ch/software/arlequin35/Arlequin35.html>
Haploview: <https://www.broadinstitute.org/scientific-community/science/programs/medical-and-population-genetics/haploview/haploview>
Structure: <http://pritchardlab.stanford.edu/structure.html>
PGDSpider: <http://www.cmpg.unibe.ch/software/PGDSpider/>
Populations: <http://bioinformatics.org/~tryphon/populations/>

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GBIOLO30 - Biologiako Gradua**Ikastaroa** Zehaztugabea**IRAKASGAIA**

26819 - Baso Ekologia

ECTS kredituak: 4,5**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Basoak izugarritzko garrantzia dute gure ongizaterako baina aldi berean egoera larrian daude. Irakasgai honetan ekosistema mota hauen oinarri ekologikoaren ezagutza eta hauekin erlazionatuta dauden arazoaren kudeaketarako behar dena lantzen da: Basoen egitura eta funtzionamendua mugatzen duten ingurumen baldintzak, Ingurumenaren ezaugarri fisiko eta kimikoak eta dinamikak, Basoetako biodibertsitatea, ekoizpena eta ziklo biogeokimikoa, eta Baso ekosistema desberdinen funtzioak ikasi eta gizartearen ongizaterako emandako zerbitzuen fluxuak.

Aldaketa klimatikoa eta kudeaketa iraunkorreko irizpideak baso ekosistemetan. Amaieran Basoetako ekologiaren erabilerarako aspektuak, basoak sufritzen duten aldaketak, jeneralean gizakien ekintzengatik. Aldi berean kudeaketa, kontserbaziorako eta errehabilitaziorako edo leheneratzerako konponbideak ikusiz.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

- Basoetako biodibertsitatea, ekoizpena eta ziklo biogeokimikoak ezagutzea.
- Basoen berezitasunak ezagututa, sistema hauetan bizi diren organismoen ezagutza eta hauen garrantzia basoen funtzionamenduan: ekoizle primarioak, kontsumitzaileak eta deskonposatzaileak.
- Baso ekosistema desberdinen funtzioak eta gizartearen ongizaterako emandako zerbitzuen fluxuak jakitea.
- Aldaketa globala eta kudeaketa iraunkorreko irizpideak baso ekosistemetan interpretatzea.
- Basoetako ekologiaren erabileraren gaitasuna kudeaketa, kontserbaziorako eta errehabilitaziorako edo leheneratzerako konponbideak aurkitzeko.

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

- Datu eta informazio biologikoa ebaluatzeko, interpretatzeko eta sintetizatzeko gaitasuna
- Behaketa eta neurketetan lortutako datuak prozesatzeko eta eredu esplikatiboen arabera interpretatzeko gaitasuna
- Txosten tekniko-zientifikoak prestatu eta idazteko gaitasuna
- Hezkuntza maila guztietako biologia-arloaren heziketa eta hedapenerako beharrezkoak diren biologikoa ezaguerak modu egokian komunikatzeko gaitasuna
- Dagozkion teknika eta ekipamenduak erabiltzea

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**KLASE TEORIKOAK**

- 1-Munduko ekosistema mota nagusien egitura eta banaketa.
- 2-Basoen kudeaketarako oinarritzko neurketak.
- 3-Ekosistema kudeatuak.
- 4-Baso-kudeaketa.
- 5-Biodibertsitatea paisaia mailan.
- 6-Karbono balantzea.
- 7-Ur eta mantenu gaien balantzea baso ekosistemetan.
- 8-Basoen biomasa eta ekoizpena.
- 9-Asaldurak
- 10-Basoetako izurriteak.
- 11-Euskal Herriko baso-egoera eta kudeaketarako estrategiak.

PRAKTIKEN PROGRAMA

1. Basoen ikasketa: egitura, landare biodibertsitate indizeak, lurzoruko materia organikoa, biomasa eta ekoizpeneko kalkuluak, zerbitzuen ebaluazioa (0,3 kreditu).
2. Landaketen ikasketa: egitura, landare biodibertsitate indizeak, lurzoruko materia organikoa, biomasa eta ekoizpeneko kalkuluak, zerbitzuen ebaluazioa (0,3 kreditu).
3. Landa praktika: baso eta landaketa ekosistemen berezitasunen (0,8 kreditu).

4. Mintegia (0,3 kreditu): Landa praktiken eta laborategiko emaitzen.

METODOLOGIA

Irakasgai honetan metodologia desberdinak erabiltzen dira:

Klaseak: hauen helburua Baso Ekologiaren eduki teorikoak transmititzea da eta irakasgaiaren matrikulatuta dauden ikasle guztientzako bideratuta daude. Dozentzia mota honetan irakasleak ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen ditu.

Gelako praktikak: Hauetan klaseetan garatutako edukiak osatu, sendotu eta aplikatu egiten dira. Banaka edo talde txikitan irakasleak problemak eta Baso Ekologiako kasu aplikatuak ikusten dituzte.

Landa- eta laborategi-praktikak: praktika hauek mintegiekin koordinatuta daude. Talde txikitan garatzen dira eta helburua irakasleak ikerketa ekologiko oso bat egitea da. Bai landan bai laborategian irakasleak Baso Ekologiako oinarritzko metodologia eta tresnak erabiltzen dituzte ingurumeneko aldagaien aldaketei komunitateen erantzunak analisatzeko.

Mintegiak: Mintegiak landa eta laborategi- praktikekin lotuta daude. Baso Ekologia arloko proiektu baten garapenerako, landa eta laborategi praktikatzen lortutako datuen analisirako eta emaitzen eztabaidarako.

Irteerak: Irakasleak baso kudeaketaren adibide desberdinak ikusi eta ikasten dituzte.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	27			10	3				5
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	40,5			15	4,5				7,5

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60

- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Irakasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

Ohiko deialdia

Irakasgaiako ebaluazio probetan irakasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragotzeari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

-Ebaluazio jarraien sistema:

Ebaluazioa azterketa idatziaren bitartez egingo da (galdera laburrak, eskemen interpretazioa eta ariketak). Honek azken emaitzaren % 60 balioko du. Praktiketako txostenak % 40ko balioa izango du. Gaia gainditzeko bai azterketa idatzia bai praktiketako txostenak gainditu behar dira. Erantzunen zuzentasuna eta zehaztasuna, eta planteamenduen koherentzia baloratuko dira. Praktiketako txostenetan, gainera, estandar zientifikoekiko egokitasuna baloratuko da.

-Azken ebaluazio sistema:

Ebaluazio jarraien sistemari uko egiten dioten irakasleak eta azken ebaluazio sistema hautatzen duenak, etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari epe

baten barruan. Epe hori bederatzi astekoa izango da ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita. Kasu honetan ebaluazioa azterketa teoriko idatziaren bidez eta azterketa praktikoaren bidez egingo da. Lehenak test motako galderak, erantzun anitzekoak, galdera laburrak, eskemen interpretazioa eta ariketak izango ditu eta azken notaren %60 balioa izango da. Bigarrenak, notaren % 40 balioa izango da, eta honetan ikaslearen ezagutza, trebesia eta konpetentzia gaiaren alde praktikoan erakutsi beharko du. Gaia gainditzeko bai azterketa idatzia bai praktikoa gainditu behar dira.

-Azterketara ez aurkeztea deialdiari egindako uko bezala ulertuko da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdia

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzekotan, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragotzeari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

-Ebaluzio jarraiaren sistema:

Uztaileko ezohiko deialdian idatzizko azterketa egin beharko da berriro; praktika-lanen kalifikazioak, ordea, gorde egingo dira. Azterketaren ezaugarriak eta ebaluazio irizpedeak ohizko deialdiako berberak izango dira.

-Azken ebaluazioa sistema:

Azterketa teoriko eta praktikoaren ezaugarriak eta ebaluazio irizpideak ohiko deialdiaren berdinak izango dira.

-Azterketara ez aurkeztea deialdiari egindako uko bezala ulertuko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak emandako agiriak.
Praktiketako protokoloak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Aber DA & Melillo JM. 2001. Terrestrial ecosystems. Harcourt Academic Press. New York.
Kent, M. & Coker, P. 1992. Vegetation Description and analysis. A Practical Approach. Belhaven Press.
Kimmins, J.P. 2003. Forest Ecology: foundations for sustainable management. Prentice Hall. Nueva Jersey.
Likens, G.E., Bormann, R. S., Pierce, R.S., Eaton, J.S. and N.M. Jhonson. 1977. Biogeochemistry of a Forested Ecosystem. Springer-Verlag, New York.
Reichle, D.E. (Ed.). 1981. Dynamic properties of forest ecosystems. International Biological Programme 23. Cambridge University Press.
Smith, R. Smith, T. 2002. Ecology and Field Biology: Hands-On Field Package. Kluwer Academic Publishers.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Bailey, G. 2002. Ecoregion-Based Design for Sustainability. Springer.
Costanza, R., Mageau, M., Norton, B. & Patten, B.C. 1998. What is Sustainability? Pp. 231-239. En: Rapport, D., Costanza, R., Epstein, P.R., Gaudet, C. & Levins, R. (eds). Ecosystem Health. Blackwell Science.
Dudley, N., Schlaepfer, R., Jeanrenaud, J.P., Jackson, W. and Stolton, S. 2006. Forest Quality - Assessing forests at a landscape scale. Earthscan.
Gliessman, S.R. 2001. Agroecosystem Sustainability: Developing Practical Strategies. CRC Press LLC. Florida. EEUU.
Innes, J.L., Hickey, G., Hoen, H.F. 2005. Forestry and Environmental Change: Socioeconomic and Political Dimensions. CABI.
Lindenmayer D.B., and Hobbs, R. 2007. Managing and Designing Landscapes for Conservation, Moving from Perspectives to Principles. Murdoch University.
Mansourian, S., Vallauri, D., Dudley, N. 2005. Forest Restoration in Landscapes - beyond planting trees. Springer.
Turner, Monica G., Gardner, Robert H., O'Neill, Robert V. 2001. Landscape Ecology in Theory and Practice - Pattern and Process. Springer

Aldizkariak

Forestry, Forest Ecology and Management, Annals of Forest Science, Applied Vegetation Science, Plant Ecology

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.nysaes.cornell.edu/ent/biocontrol/>
<http://www.worldwildlife.org/>
<http://www.biologybrowser.org/>
<http://www.unep.org/>
<http://oils.gpa.unep.org/facts/facts.htm>
<http://www.ser.org/>
<http://www.iucn.org/>
<http://www.ipcc.ch/>
http://highered.mcgraw-hill.com/sites/0073050822/student_view0/index.html
<https://www.khanacademy.org/partner-content/crash-course1/cc-ecology>

OHARRAK

COURSE GUIDE

2026/27

Faculty 310 - Faculty of Science and Technology**Cycle** .**Degree** GBIOLO30 - Bachelor's Degree in Biology**Year** .**COURSE**

26823 - Cell & Molecular Biology

Credits, ECTS: 6**COURSE DESCRIPTION**

To give a wide and deep knowledge on the function of the eukaryotic cell and its compartments.

The course pretends that the student understands the new dynamic, molecular and three dimensional concept of the cell, becoming aware of the importance of cell biology for a professional career. It is highly recommended to have previously taken the subjects Cell Biology and Tissue Biology.

COMPETENCIES/LEARNING RESULTS FOR THE SUBJECT**SPECIFIC COMPETENCIES**

- To know the structure, function and molecular composition of the eukaryotic cell; and acquire the capacity to integrate the three concepts in a unique and dynamic conceptual framework of the cell.
- To know the basic mechanism that regulate development in metazoans, from the processes of cell proliferation to those of cell senescence and death.
- Recognise that cell differentiation leads to cell specialization.
- Identify the laboratory techniques that allow the structural and molecular analysis of the eukaryotic cell.

TRANSVERSAL COMPETENCIES

- To evaluate, interpret and synthesize biological information and data.
- To properly communicate the essential biological knowledge for teaching and diffusion of this subject in all academic degrees.
- To improve in the oral and written communication of the mother tongue, and also in the knowledge of the english as scientific communication language.
- To improve the informatic knowledge in relation to the studies in order to allow a correct management of the data and results and an efficient treatment of the scientific sources.
- To properly communicate the knowledge of biology necessary for the teaching of this subject in the education system.
- To safely manipulate chemical products and biological organisms and avoid environmental impacts derived from their use.

Theoretical and Practical Contents**PROGRAM OF THEORETICAL LECTURES**

1. INTRODUCTION. Evolution of the concept of cell. Present context of Cell Biology. Present day techniques in Cell Biology.
2. CELLULAR EVOLUTION. Origin of life and of the first cells. Prebiotic evolution. Evolution of prokaryotes. The first eukaryotic cell. Evolution of pluricellularity. Genome evolution. Concept of genome, gene and transcriptional unit. Coding and non-coding DNA sequences. Mechanisms of genome evolution.
3. INTERCELLULAR COMMUNICATION. Introduction: general aspects of cell communication. Cell signaling mechanisms. Signaling mediated by intracellular receptors. Signal transduction concept. Signaling mediated by membrane receptors: coupled to G proteins and second messengers, ion-channels and catalytic. Other signaling systems. Interactions between signaling systems: neuroepithelial cells.
4. CELL ADHESION AND MOTILITY. Molecular mechanisms of cell adhesion: immunoglobulins, cadherines, integrins, selectins, proteoglycans. Importance of adhesion in embryo development, in inflammatory and in cicatrisation processes and in cancer. Cell motility mechanisms: actin cell cortex tension and substrate adhesion and endocytic cycle. Generation of polarity in moving cells. Relative importance of microtubules and microfilaments in cell motility. Chemotaxis.
5. BIOGENESIS OF ORGANELLES. General mechanism of protein import in organelles. Signal sequences and protein sorting. Protein folding and assembly. Protein recycling: ubiquitin signaling and proteolytic degeneration in proteasomes. Biogenesis of nuclei, mitochondria/chloroplasts and peroxisomes.
6. INTRACELLULAR VESICULAR TRAFFIC. Vesicle formation, compartment identity maintenance, vesicle traffic, membrane fusion. Mechanisms of sorting transport vesicles. Types of transport vesicles: clathrin, coatamer, caveolin coated. Transport direction: Rab, SNAREs and NSF. Role of cytoskeleton.
7. CELL CYCLE REGULATION. Concept of cell renewal. Cell growth phases. Regulation: check-points. Cell cycle regulatory proteins: cyclins and cyclin dependent kinases. Growth factors.
8. CELL DIFFERENTIATION. Cell determination and differentiation. Unchanging genome. Differential gene expression. Induction and competence. Nuclear memory. Genetic imprint and DNA methylation, X chromosome inactivation. Cytoplasmic memory. Autocrine memory. De-differentiation: and trans-differentiation.
9. MORPHOGENESIS: FORMATION OF BODY-PATTERN. Space and cell differentiation. Formation of body-pattern. Positional information: homeotic genes. Genes for the formation of the fruitfly body-pattern: egg polarity genes, segmentation genes, homeogenes. Homeotic sequence. Conservation of genes of body-pattern formation in evolution.

10. CELL RENEWAL AND TISSUE MAINTENANCE. Maintenance of the differentiated status of cells. Cell renewal. Renewal through duplication. Renewal through stem-cells.
11. CELL BIOLOGY OF CANCER. Definitions: benign and malign tumors, metastasis, cancer. Phenotype and characteristics of cancer cells. Cancer progression: beginning, promotion. Carcinogenic agents: chemical agents, physical agents, viruses. Proto-oncogenes and oncogenes. Tumor-suppressor genes. Mistakes in DNA repair.
12. CELL AGING. Definition, Hayflick's limit. Mechanisms. Stochastic theories or theories of mistake: oxygen free radicals. Deterministic theories or theories based upon a genetic program: gerontogenes, regulation of cell cycle; decrease in telomere length.
13. CELL DAMAGE AND DEATH. Cell damage. Necrosis. Apoptosis. Intracellular and extracellular signals, cell death receptors. The importance of calcium. Caspases Mitochondria in apoptosis (cytochrome c and AIF). Apoptosis in the development of the embryo and in mature organisms.
14. BIOLOGY OF THE CANCER CELL. Definitions: malignant and benign tumor, metastasis and cancer. Phenotype and characteristics of cancer cells. Development of cancer: beginning and follow-up. Carcinogenic agents: chemical and physical agents and viruses. Retrobugs. Proto-oncogene and oncogene. Tumor suppressor genes. Errors in DNA repair.

PROGRAM OF PRACTICAL LESSONS

CLASSROOM PRACTICALS

1. Bibliographic search in Pubmed for Seminar preparation
2. Organization of the eukaryotic gene.
3. Cancer.
4. Biogenesis and diseases associated to mutations in protein localization sequences

LABORATORY PRACTICALS

5. Morphogenesis: formation of body pattern.
6. Cell cycle regulation and the cytoskeleton in cell division.
7. Cancer
8. Cell adhesion and motility.

SEMINARS

9. Oral presentation of a work based on Cell Biology current scientific articles.

TEACHING METHODS

THEORETICAL SESSIONS. The students will have the presentations on the eGela platform. Likewise, a series of videos and links of interest in the eGela platform will be made available to students in order to have the possibility of deepening the contents of the subject.

LABORATORY PRACTICAL SESSIONS. By means of basic techniques in Cell Biology (light microscopy and cell cultures) the different applications that Molecular Cell Biology can have will be analyzed.

CLASSROOM PRACTICE SESSIONS. Different approaches will be made to the use of data bases in Molecular Cell Biology.

SEMINARS SESSIONS. A group presentation of different types of activities on a current issue of investigation in Molecular Cell Biology.

TYPES OF TEACHING

Types of teaching	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Hours of face-to-face teaching	36	4	6	14					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	54	6	9	21					

Legend: M: Lecture-based S: Seminar GA: Applied classroom-based groups
 GL: Applied laboratory-based groups GO: Applied computer-based groups GCL: Applied clinical-based groups
 TA: Workshop TI: Industrial workshop GCA: Applied fieldwork groups

Evaluation methods

- Continuous evaluation
- End-of-course evaluation

Evaluation tools and percentages of final mark

- Written test, open questions 55%
- Multiple choice test 15%
- Exercises, cases or problem sets 15%

- Oral presentation of assigned tasks, Reading, 15%

ORDINARY EXAMINATION PERIOD: GUIDELINES AND OPTING OUT

The exams and assessment activities for this course will be conducted in accordance with the principles of academic integrity, honesty, and ethical conduct established in EHU regulations. Upon enrolling at EHU, students signed the Declaration of Commitment to Ethical Behavior and Academic Integrity pledging not to engage in plagiarism, academic fraud, or use unauthorized materials or devices, including artificial intelligence tools when not expressly permitted, in exams and academic assignments. Failure to comply with these obligations may result in the academic and disciplinary consequences provided for in current university regulations.

ORDINARY CALL EVALUATION:

A) CONTINUOUS assessment

The final grade will be calculated by applying the following percentages only when the obtained grade in each of the sections is 5 or higher.

- Written final exam (limited space) (55%): The written test will consist of an examination of all the contents of the subject. It may include different types of questions and exercises, such as short questions to develop, making comparative tables or schematic drawings, definitions, test questions, etc. Evaluation criteria: Relevance of the response, use of scientific terminology, expression and argumentation. Mandatory activity.

- Questionnaires (%15). Questionnaires will be performed at the end of each thematic blocks with 15 to 25 test-type questions.

- Seminar evaluation (presentation and oral defense) (15%). Selection and in-depth study of research articles related to Molecular Cell Biology. Delivery of a written work and presentation in the classroom. Evaluation criteria: organization and structuring of information, use of scientific terminology, capacity for analysis and synthesis, clarity of exposition, adequate expression and communicative attitude, use of adequate resources. Seminars are mandatory activities.

- Evaluation of laboratory practices and classroom practices (15%): Delivery of different works through the tools of the eGela platform. Evaluation criteria: Relevance of the answer, use of scientific terminology, expression and argumentation. Laboratory activities are mandatory.

B) FINAL assessment : Written test . Theory 70% and Practical 30% (includes questions about laboratory and seminars), only when the obtained grade in each of the sections is 5 or higher.

DISCLAIMER: For students, with continuous or final evaluation options, it will be enough to not take the final test to obtain a final grade as << Not presented >>.

WAIVER OF CONTINUOUS EVALUATION. Students who wish to renounce the continuous assessment system and want to do for the final assessment, must indicate this in writing.

During the development of the evaluation tests, the use of books, notes, as well as telephone, electronic, computer or other devices by the students will be prohibited. In case of dishonest or fraudulent practice, the provisions of the protocol on academic ethics and prevention of dishonest or fraudulent practices in the evaluation tests and academic work at the EHU will be applied.

EXTRAORDINARY EXAMINATION PERIOD: GUIDELINES AND OPTING OUT

The exams and assessment activities for this course will be conducted in accordance with the principles of academic integrity, honesty, and ethical conduct established in EHU regulations. Upon enrolling at EHU, students signed the Declaration of Commitment to Ethical Behavior and Academic Integrity pledging not to engage in plagiarism, academic fraud, or use unauthorized materials or devices, including artificial intelligence tools when not expressly permitted, in exams and academic assignments. Failure to comply with these obligations may result in the academic and disciplinary consequences provided for in current university regulations.

EVALUATION NON-ORDINARY CALL: Written test. Theory 70% and Practical 30% (includes questions about GA+GL+S) only when the obtained grade in each of the sections is 5 or higher.

EXAM CALL RENOUNCE BY STUDENTS: For the students it will be sufficient not to take part in the final exam so the final grade of the subject will be << Not presented >>.

During the development of the evaluation tests, the use of books, notes, as well as telephone, electronic, computer or other devices by the students will be prohibited. In case of dishonest or fraudulent practice, the provisions of the protocol on academic ethics and prevention of dishonest or fraudulent practices in the evaluation tests and academic work at the EHU will be applied.

MANDATORY MATERIALS

The basic material in order to follow the theoretical lesson will be in the eGela.
Lab coat and the protocol of the practicals is compulsory for lab practicals.

BIBLIOGRAPHY

Basic bibliography

ALBERTS B, D BRAY, K HOPKIN, A JOHNSON, J LEWIS, M RAFF, K ROBERTS & P WALTER. 2015. Essential cell biology. 4rd edit, Garland Science, New York & London.
ALBERTS B, JOHNSON A, LEWIS J, RAFF M, ROBERTS K & P WALTER. 2015. Molecular biology of the cell 6th edit., Garland Science, New York.
GILBERT SF. 2003. Developmental biology. 7th edit, Sinauer Associates Inc. Publishers, Sunderland, Massachusetts.
Spanish edition: Biología del Desarrollo. 7th edit, 2005, Editorial Médica Panamericana, Buenos Aires.
KARP G. 2011. Biología celular y molecular: conceptos y experimentos. 6th edit. McGraw Hill.
LODISH H, A BERK, CA KAISER, M KRIEGER, A BRETSCHER, A AMON, MP SCOTT. 2016. Biología Celular y Molecular. 7th edit. ditorial Médica Panamericana, Buenos Aires.
POLLARD TD & WC EARNSHAW. 2004. Cell Biology. Elsevier Saunders.

Detailed bibliography

BECKER WM, LJ KLEINSMITH & J HARDIN. 2007. El Mundo de la Célula. 6th edit. Pearson Educación S.A.
BROWN TA. 2007. Genomes 3. 3rd edit. Garland Science, New York.
JUNQUEIRA LC; CARNEIRO J. 2005. Histología Básica. Texto y Atlas. 6th edit, Masson SA, Barcelona.
PANIAGUA R, NISTAL M, SESMA P, ÁLVAREZ-URÍA M, FRAILE B, ANADÓN R, SÁEZ FJ. 2007. Biología Celular. Vol.I. 4th edit, McGraw-Hill-Interamericana, Madrid.
STEVENS A, LOWE J. 1998. Histología humana. Harcourt Brace.
WOLPERT L, TM JESSELL, P LAWRENCE, E MEYEROWITZ, E ROBERTSON & J SMITH. 2010. Principio del desarrollo. 3rd edit. Editorial Médica Panamericana.

Journals

Annual Review of Cell and Developmental Biology
Cell
Cell and Tissue Research
Current Opinion in Cell Biology
Experimental Cell Research
European Journal of Cell Biology
Histochemistry and Cell Biology
International Review of Cytology
Journal of Cell Biology
Journal of Cell Science

Web sites of interest

<https://www.proteinatlas.org/>
<https://www.ncbi.nlm.nih.gov/books/NBK21054/>
<http://blogs.nature.com/blog/category/cell-and-molecular-biology/>

OBSERVATIONS

A level of B2 or higher is recommended to attend courses taught in English
Coordinador of the subject: Nerea Garcia Velasco, nerea.garcia@ehu.eus

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztu gabea**Plana** GBIOLO30 - Biologiako Gradua**Ikastaroa** Zehaztu gabea**IRAKASGAIA**

26813 - Eboluzio Molekularra

ECTS kredituak: 4,5**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honetan DNA eta produktu genikoen eboluzioaren oinarriak lantzen dira, eta bai datu genetikoaren erabilera izakien ikasketa ebolutiboetan. Hasteko, prozesu ebolutibo garrantzitsuen sarrera teorikoa aurkezten da, ondoren sekuentzia molekularren eta genoma osoen eboluzioa aztertzeko. Gainera, irakasgai honek osagai praktikoa handia du, bioinformatikako hastapenak lantzen baitira eta filogenia molekularrak egiteko lanabesak erabiltzen baitira.

Irakasgaia bukatutakoan ondoko trebetasunak izango dituzu: Prozesu ebolutibo desberdinen ondorioak ezagutu, Interneten dauden baliabide bioinformatikoak erabilera autonomoa, eredu ebolutiboaren oinarriak eta onarpenak ezagutu eta emaitzak interpretatu testuinguru ebolutiboan. Azkenik, izaki desberdinen datu molekularrak erabiliz taxonomia molekularrean erabilgarriak diren filogeniak eraiki ahal izango dituzu.

Irakasgai hau eboluzio molekularrean eta Genomika konparatiboan interesa duten ikasleentzat egokia da, eta zeresanik ez, taxonomia molekularra edo populazioen analisi molekularra egin nahi duten ikasleentzat ere.

This course is offered only in Basque and/or Spanish. However, it is English-friendly: incoming students may communicate with the instructors in English and may request to take examinations in English.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**GAITASUNAK**

- (1) Eboluzio molekularreko terminologia zientifikoa eta oinarrizko kontzeptuak ezagutzea eta erabiltzeko gai izatea.
- (2) Populazioen eta espezieen aldakortasun genetikoaren jatorria eta banaketa ezagutzea eta bai bere garrantzi ebolutiboa ere.
- (3) Eboluzio molekularren prozesuak interpretatzea, sekuentzien analisia, teknika bioinformatikoak eta zuhaitz filogenetikoaren eraiketaren bidez.
- (4) Genomen eboluzioa analizatzeko eta interpretatzeko gai izatea, euren tamaina eta egituraren aldaketak kontutan hartuz.
- (5) Informazioa eta datu biologikoak ebaluatzea, interpretatzea eta sintetizatzea.
- (6) Irakatsitako eta modu autonomoan ikasitako ezagumenduak integratzea modu sortzailean, metodo zientifikoaren aplikazioaren bidez arazo biologikoen ebazpena baimenduz.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**EGITARAU TEORIKOA****ONARRIAK**

1. gaia Sarrera. Zer da eboluzioa? Teoria ebolutiboak
2. gaia Aldakortasunaren garrantzia eboluzioan. Aldakortasuna aztertzeko teknikak. Aldakortasunaren kuantifikazioa. Eboluzio neutrala eta moldapena.
3. gaia Geneen dinamika populazioetan. Oinarrizko kontzeptuak. Hardy-Weinberg oreka. Eboluzio-mekanismoak.

BIOINFORMATIKA

4. gaia Sekuentzien erkaketa. Sekuentzien lerrokaketa. Lerrokaketa-motak. Binakako lerrokaketarako metodoak. Lerrokaketa multipleak. Lerrokaketen ebaluaziorako metodoak.
5. gaia Bioinformatika eta eboluzio molekularra. Bioinformatikarako sarrera. Gene eta proteinen datu-baseak. Sekuentzien eta genomen erkaketa teknika bioinformatikoen bidez.

SEKUENTZIA MOLEKULARREN EBOLUZIOA

6. gaia Proteinen sekuentzien eboluzioa. Aminoazido-ordezpenen kopuruaren estima. Ordezpen-matrizeak: lekuarekiko menpekoak eta ez-menpekoak diren metodoak. Kode genetikoak. Kodioen erabilera. Alborapena kodioen erabileran: dialekto genetikoak. Erloju molekularra. Eboluzio molekularren taseen aldakuntza. Leinuaren efektua. Espezieen arteko dibergentzia-denboraren estima.
7. gaia Azido nukleikoen sekuentzien eboluzioa. Nukleotido-ordezpenen taseen estima. Jukes-Cantor metodoa. Kimuraren

2 parametroen metodoa. Nukleotido-ordezpenen metodoa. Tamuraren metodoa. Gamma distantzia. Ordezpen sinonimo eta ez-sinonimoak. Metodoen balorazioa. Hautespeneren detekzioa. Ordezpen-tasen aldakuntza DNAREN eskualde desberdinetan. DNA mitokondrial eta kloroplastikoa.

FILOGENETIKA MOLEKULARRA

8. gaia Filogenetika molekularra. Terminologia. Gene ortologo, paralogo eta homologoak. Topologia eta zuhaitz filogenetikoaren motak.

9. gaia Distantzia genetikoak. Distantzia metrikoak eta euklideoak. Neiren distantzia eta identitatea. Adibideak.

10. gaia Filogenien berreraiketa. Taldekapenean oinarritutako eraiketa-metodoak: UPGMA eta Neighbor-Joining. Optimizazioan oinarritutako eraiketa-metodoak: Eboluzio minimoa, Partsimonia eta Berosimilitudea. Zuhaitzen fidagarritasunaren ebaluazioa. Analisi filogenetikoaren aplikazioak.

GENOMEN EBOLUZIOA

11. gaia Geneen tamainuaren eta konplexutasunaren eboluzioa. Geneen bikoizketa. Domeinuen eta exoen nahasketa.

12. gaia Genomika konparatiboa. Genomen osaketa eta C balioaren paradoxa. Sekuentzia errepikatuen eboluzioa. Eboluzioa genomen duplikazioz. Landareen Genomika konparatiboa. Animalien Genomika konparatiboa.

PRAKTIKEN EGITARAUA

- 1) DNA eta proteinen sekuentzien bilaketa datu-base molekularretan.
- 2) Aldaki genetikoaren bilaketa datu-base molekularretan.
- 3) DNA eta proteinen sekuentzien homologia-analisia.
- 4) Zuhaitz filogenetikoaren eraiketa eta interpretazioa (2 saio).

METODOLOGIA

Irakasgaia irakaskuntz-modalitate desberdinetaz baliatzen da.

- Eskola magistralen bidez kontzeptu teorikoak, ariketak eta adibide praktikoak azalduko dira,
- Bestalde, ordenagailuko praktikak eta mintegiak talde-lanean egingo dira. Bertan, datu-base molekularren erabileran, sekuentzia molekularren azterketan eta filogenien eraiketan sakonduko da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	25	5			15				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	35	15			17,5				

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 50
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 15
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 15

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ikus ohiko deialdirako eta ezohiko deialdirako orientazioak % 100

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaiaren ebaluazioa jarraitua izango da. Ebaluazio jarraituak eskatzen du saio guztietara bertaratzea eta zeregin guztiak garaiz entregatzea.

Ebaluazio jarraitua egiten hasi eta alde batera uztea erabakitzen duten ikasleek edo hasieratik ebaluazio jarraitua ez egitea aukeratzen duten ikasleek ebaluazio ez-jarraituan sartzeko eskubidea izango dute. Eskubide hori gauzatu ahal izateko, ikasleak ebaluazio jarraituari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat helarazi behar dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, lauhilekoaren hasierako bederatzi astean barruan (1. - 9. asteetan). Halako idatzirik bidali ezean, ebaluazio jarraiturako aurkeztutako zereginak kalifikatuko dira.

UPV/EHUko Ebaluaziorako Arautegiko 12.2 artikularen arabera, azken probaren pisua irakasgaiko kalifikazioaren % 40

edo txikiagoa bada, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino gutxienez hilabete lehenago eskaria egin beharko dute deialdiari uko egiteko. Eskari hori, idatziz, irakasgaiaren ardura duen irakasleari aurkeztu beharko zaio. Hori horrela, deialdiari uko egiten dioten ikasleek AURKEZTEKE kalifikazioa jasoko dute aktan; deialdiari uko egiten ez dioten ikasleek, azken probara aurkezten ez badira, aktan GUTXIEGI kalifikazioa izango dute (zenbakizko kalifikazioa: 0).

EBALUAZIO JARRAITUA: KALIFIKAZIO-TRESNAK ETA EHUNEKOAK:

- Galdetegiak: % 20
- Ahozko aurkezpenak: % 30
- Portfolioa: % 50

EBALUAZIO EZ-JARRAITUA:

Ebaluazio ez-jarraiturako orientazioak ezohiko deialdirako zehaztutako berberak dira.

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHuren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso-adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere (adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean). Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

EZOHICO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian, bai eta ohiko deialdiko ebaluazio ez-jarraituan, irakasgai osoa edo gehiena azterketa bidez ebaluatuko da. Azterketa ordenagailu-gelan egingo da, hizkuntza-tresna elektronikoekin lotutako gaitasunak ebaluatu ahal izateko. Ahozkoa ere ebaluatuko da. Horretarako, azterketa egunean, idatzia bukatu ondoren, 10 minutuko ahozko aurkezpena egingo dute azterketara aurkezten diren ikasleek ordenagailu-gelan bertan. Aurkezpena egiteko diapositibak prest ekarri beharko dituzte azterketa egiten duten ikasleek. Idazlanean eta ariketa praktikoetan, gogoeta eta galdera teorikoak ere sartuko dira, gaitasun guztiak ebaluatu ahal izateko.

Test motako proba: % 20
Ariketa praktikoak: % 25
Idazlana: % 25
Ahozko aurkezpena: % 30

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak emandakoa:
- apunteak,
- artikulak,
eta
- ikasleak berak erabili beharko dituenak lanak prestatzeko.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

EZEIZA, J; ALDEZABAL, I., ELORDUI, A., ZABALA, I., UGARTEBURU, I., ELOSEGI, K. (2010) PREST: Unibertsitateko komunikazio-gaitasunen eskuliburua. EHUKo Euskara Errektoreordetzaren sareko argitalpena:
<http://testubiltegia.ehu.es/Prest-komunikazio-gidaliburua>
ETXEBARRIA, J.R. (2011) Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak. EIMArek estilo-liburua
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/es_5490/adjuntos/estilo_liburua/Zientzia_22_06.pdf
ETXEBARRIA, J.R. (2014) Komunikazioa euskaraz ingeniartzan. Bilbo. EHU eta UEU
EUSKALTZAINDIA (2018) Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE).
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&task=sarrera&Itemid=1161
EUSKALTZAINDIA "Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua" (Euskaltzaindiaren 87 araua)
https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf
EUSKALTZAINDIA "Adierazpena euskalkien erabileraz: irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan" (Euskaltzaindiaren 137 araua) https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0137.pdf

Gehiago sakontzeko bibliografia

ALVARADO CANTERO, L. (2017) "Géneros académicos orales: Estructura y estrategias de la exposición académica" Revista Nebrija de Lingüística Aplicada a la Enseñanza de las Lenguas.

ALCOBA, S. (1999) La oralización. Barcelona: Ariel Practicum.

BONDI, M. eta LORÉS, R. (ed.) (2014) Abstracts in Academic Discourse. Berna: Peter Lang

CASTELLÓ, M. (koord.) (2007) Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos. Conocimientos y estrategias. Crítica y fundamentos. Barcelona: Graó

EUSKALTZAINDIA. (1986). Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak

EUSKALTZAINDIA (1992) Hitz elkartuen osaera eta idazkera

GOTTI, M. (ed.) (2012) Academic Identity Traits. Berna: Peter Lang

GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (2003) Aproximaciones al lenguaje de la ciencia. Burgos: Fundación Instituto Castellano y Leonés de la Lengua. Colección Beltenebros.

ITURBE, J. eta TXURRUKA, J.M. (2020) Amets bikoitza. Euskara zientifikotzen eta zientzia euskaratzen. EHUko Argitalpen Zerbitzua.

KAUR, K., AFIDA, M.A. (2018) "Exploring the Genre of Academic Oral Presentations: A Critical Review" International Journal of Applied Linguistics & English Literature. Vol.7, 1

UZEI. 1982. Maileguzko hitzak: ebakera eta idazkera

VALEIRAS, J., RUIZ, M.N., JACOBS, G. (2018) "Revisiting persuasion in oral academic and professional genres: Towards a methodological framework for Multimodal Discourse Analysis of research dissemination talks" Ibérica: Revista de la Asociación Europea de Lenguas para Fines Específicos (AELFE), Nº. 35: 93-118

VÁZQUEZ, G. (2001) El discurso académico oral. Guía didáctica para la comprensión auditiva y visual de clases magistrales. Madrid: ADIEU.

YOUNG, K.S. eta TRAVIS, H. P. (2018) Oral communication: skills, choices, and consequences. Illinois: Waveland press. (4. argitalpena, 1. argitalpena 2012)

ZUAZO, K. (2005) Euskara batua. Ezina ekinez egina. Elkar.

ZUAZO, K. (2008) Euskalkiak euskararen dialektoak. Elkar.

Aldizkariak

- Elhuyar aldizkaria: <http://aldizkaria.elhuyar.eus/>
- Ekaia. Euskal Herriko Unibertsitateko zientzia aldizkaria: <http://www.ehu.eus/ojs/index.php/ekaia>

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.euskaltzaindia.eus/>

<http://www.hiztegia.net/>

<http://hiztegiak.elhuyar.eus/>

http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/kontsultak/

<http://ehu.eus/ehg/zehazki/>

<http://www.euskara.euskadi.eus>

<http://www.ei.ehu.es>

<http://www.elhuyar.eus/>

<https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/ehulku-aurkibidea/>

<http://ehuskaratuak.ehu.eus/kontsulta/>

http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.eus/p267-http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/eu <http://31eskutik.eizie.eus/>

<http://www.erabili.eus/>

<http://gaika.ehu.eus/eu>

<https://zientziakaiera.eus/>

<http://teknopolis.elhuyar.eus/?lang=eu>

<https://ahotsak.eus/>

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztu gabea

Plana GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztu gabea

IRAKASGAIA

26824 - Ingeniaritza Genetikoa eta Analisi Genetiko Molekularra

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai honetan azido nukleikoen erauzketa, analisia, maneia, klonazioa eta adierazpena ahalmentzen duten metodologia esperimentalen oinarriak jorratzen dira. Metodologia guzti hauen helburua hurrengoa da: zelulen funtzionamenduaren gaineko aurrepausuak ematea eta ezagumendua Biologian, Biomedikuntzan eta Bioteknologian aplikatzea.

Hautazko irakasgai hau Zelulen Biologia, Molekularra eta Genetikaren ibilbidean eskaintzen da. Zelulen Biologia, Biokimika, Genetika, Mikrobiologia eta Genetika Molekularra ikasgaietan barneratu diren ezagumenduak erabiltzen dira irakasgaia lantzen hasteko. Irakasgai honetan jorratzen diren edukinak Genetikaren zein Zelulen Biologiaren edo Mikrobiologiaren arloko beste irakasgaietan jorratzen direnekin integratuta eta erlazionatuta daude. Irakasgaia Biologo Molekularra izango denarentzako oinarritzko irakasgaia da.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

1. Azido nukleikoen in vitro analisia eta manipulazioa ahalmentzen duten eta Genetika Molekularrean eta genomen analisi molekularrean ohikoak diren estrategia metodologikoak eta teknologikoak ezagutzea eta erabiltzea.
2. Teknika molekularrek Ikerketan, Biomedikuntzan eta Bioteknologian dauzkaten aplikazioak ezagutzea eta konprenitzea.
3. Analisi molekularrean erabiltzen diren oinarritzko prozedurak ezagutzea eta maneiatzea.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

1. Analisi eta sintesi gaitasuna garatzea, eta arrazoiketa kritikoan eta konpromiso etikoan aurrepausuak ematea
2. Antolakuntza eta planifikazio gaitasunetan aurrera egitea
3. Taldeko lana garatzea

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**EGITARAU TEORIKOA**

1.- DNA errekonbinantea: definizioa eta helburuak. Geneak aztertzeko eta manipulatzeko sistema orokorra. DNA errekonbinantearen teknologiaren testuinguru historikoa.

DNA, RNA ETA PROTEINEN ANALISI ETA MANEIUAREN OINARRIAK

2.- Azido nukleikoak eta proteinak analizatzeko eta manipulatzeko oinarritzko teknikak: gogoeta orokorrak. Laginak lortzea. Azido nukleikoen erauzketa, kuantifikazioa eta elektroforesia. In vitro entzima tresnak: errestrikzio-entzimak, ligasak. In vivo entzima tresnak: CRISPR/Cas9. Zundak eta hibridazioa: Southern, Northern eta Microarray. Proteinak erauzketa, detekzioa eta kuantifikazioa: Western, immunohistokimika eta proteomika.

3.- Azido nukleikoen in vitro aplikazioak: PCR teknikaren deskribapena. qPCR eta RT-qPCR. Aplikazioak. Sekuentziazio oinarritzko teknikak.

ERALDAKETA GENIKOA BAKTERIOETAN

4.- DNA errekonbinantearen klonazioa bakterioetan. Sistema ostalariak. Klonazio bektoreak eta beroien ezaugarriak. Bakterioen transformazioa. Transformatuen hautespena. DNA plasmidikoaren erauzketa eta purifikazioa.

5.- Gene heterologoen adierazpena bakterioetan. Adierazpen-bektoreak. Promotore indusagarriak. Adierazpen-sistemak. Fusio-geneak. Proteinak purifikazioa eta detekzioa. Gene markatzaileak. Bakterioen eraldakuntza genetikoaren aplikazioak.

6.- Genotekak eta sekuentziazio masiboa. Genoteka genomikoak eta cDNAkoak. DNA klonatuaren screening-a. DNAseq eta RNAseq.

ERALDAKETA GENIKOA EUKARIOTOETAN

7.- Geneen transferentziarako metodo orokorrak eukariotoetan. Transfekzio ez-egonkorra eta egonkorra.

8.- Genetikoki eraldaturiko landareak: Hobekuntza genetiko landareetan. Transgenesis landareetan. Klonazio-bektore motak eta beroien ezaugarriak. Gene heterologoen adierazpenaren kontrol sistemak. Edizio genikoa landareetan. Aplikazioak.

9.- Ugaztun zelulen eraldakuntza genetikoak: Geneen transferentzia ugaztun zeluletan. Klonazio-bektore motak eta beroien ezaugarriak. Gene heterologoen adierazpenaren kontrol sistemak. Aplikazioak.

10.- Geneen etenketak, ixilarazpena eta edizioa: Errekonbinazio homologoa. Errekonbinazio leku-espezifikoak eta geneen etenketak baldintzatuta. RNAren interferentzia (iRNA)-ren bidezko geneen ixilarazpena: zentzu kontrako oligonukleotidoak, siRNAak eta mikroRNAk. Geneen edizioa CRISPR/Cas9-ren bidez.

11.- Genetikoki eraldaturiko animaliak. Sagu transgenikoen ekoizpena: knockout eta knockin saguak. Adierazpen kontrolaturiko sistemak. Beste animali transgenikoen ekoizpena: transferentzia nuklearra. Aplikazioak.

12.- Terapia genikoa ex vivo vs. in vivo eta somatikoa vs. germinala. Gizaki-zelulen transfekzio-sistemak. Terapia

genikoaren erabilera gaixotasun genetiko eta hartutakoetan.

EGITARAU PRAKTIKOA

Lambda fagoaren klonazioa pUC18 plasmidoan:

- Lambda fagoaren eta pUC18 bektorearen liseriketa. Ligazioa
- Ligazioarekin transformazioa eta medio hautatzailean ereitea
- Errekonbinanteen DNA plasmidikoaren erauzketa eta purifikazioa
- DNA plasmidikoaren liseriketa eta klonatutako zatien analisisa

METODOLOGIA

Ikasgaiak dozentzia-modalidade desberdinak barneratzen ditu. Eskola magistralen bidez kontzeptu teorikoak azalduko dira. Gelako praktikan eduki teorikoak egoera problematikoaren ebazpenerako aplikatuko dira, esperimentu teorikoen planteamendua egiteko erabili behar diren kalkuluak eta emaitzen analisisa egitea baimenduko duten ariketak planteatuko dira. Mintegietan ikasitako metodologiaren aplikazioen biderakortasunari, segurtasunari eta gizarte pertzepzioari buruzko txosten zientifiko batzuk kritikoki aztertuko dira.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	35	5	5	15					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	15	15	15					

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 35
- Test motatako proba % 15
- Praktika (ariketak, kasuak edo buruketak) % 30
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean "Zintotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena" izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere; adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoeneari. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

Ebaluazio-sistemak zera barneratzen du:

- 1) idatzitako amaierako bakar-proba, non test-galderak (%15) eta garatzeko galderak (%35) ebatzi beharko baitu ikasleak (azken notaren %50a). Atal bakoitzeko gutxienez 4,0 bat atera behar da ikasgaia aprobatzeko;
- 2) egindako lan esperimentalari dagokion talde-txostena (azken notaren %30a).
- 3) idatzitako talde-probak, non problema teorikoak zein praktikoak ebatzi beharko ditu ikasle-taldeak (azken notaren %10a)
- 4) egindako mintegiei dagozkion talde-txostena (azken notaren %10a).

Irakasgaia gainditzeko atal bakoitzean gutxieneko nota eskatzen da (4/10).

Ebaluaketa jarraiari uko egiteko irakasleari zuzenduriko arrazoiketa idatzia eskatzen da eta idatzizkoa dozentziaren lehenengo 9 asteetan entregatu behar da.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere. Bakarrik baimentzen da apunteak eta kalkulagailua eramatea.

Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

Ikasleak amaierako bakar-probara aurkezten ez bada, ebaluazioaren deialdian Ez Aurkeztua agertuko da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ez-ohiko deialdiaren ebaluazio-sistema, ohiko deialdian egiten denaren berdina izango da. Kurtsoan zehar ebaluazio jarraian lortutako emaitza positiboak kontuan hartuko dira. Emaitzak negatiboak izanez gero, azterketa amaierako azterketak ebaluazioaren %100 osotuko du.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Bakarrik baimentzen da apunteak eta kalkulagailua eramatea.

Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzekotan, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

Ikasleak proba honetara aurkezten ez bada, ebaluazioaren deialdian Ez Aurkeztua agertuko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak ONDOKO MATERIALA ESKAINIKO DIO IKASLEARI:

TEORIA ESKEMA/IRUDI BILDUMA eskola magistralen jarraipena errazteko.

PROBLEMA BILDUMA. Bilduma honetan oinarriturik, ikasgelan zenbait problema azalduko dira, gainerakoak lan pertsonala eta talde-lana egiteko material gisa erabiliko dira.

LABORATEGIKO PRAKTIKEN PROTOKOLOAK. Bertan, laborategian bete behar diren urrats esperimentalak deskribatzeaz gain, praktika bakoitzak duen helburua eta bere oinarri teorikoak azaltzen dira. Praktika egin aurretik, nahitaezkoa da protokoloaren irakurketa, modu autonomoan egin behar baitituzue praktika bakoitzari dagozkion eginkizunak.

MINTEGIETARAKO PROTOKOLOAK, praktiken protokoloarekin batera eskainiko da. Honetaz gain, mintegi bakoitzak beharko lukeen dokumentazio espezifiko saioan bertan banatuko da.

Beharrezkoa den materiala irakasgaiaren gela birtualean eskegita egongo da.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Wink M. (redactor)(2021) An introduction to Molecular Biotechnology: Fundamentals, Methods and Applications. 3rd. edition. Ed. Wiley ISBN: 978-3527344147.
- Real MD, Rausell C, Latorre A(2017)Técnicas de ingeniería genética. Editorial Síntesis. ISBN: 978-84-9171-071-4.
- Klug WS, Cummings MR, Spencer CA, Palladino MA. Killian D (2019) Concepts of Genetics. 12th edition (978-1292265322).
- Brooker RJ (2021) Genetics. Analysis & Principles. 7/e. McGraw Hill (978-1260240856)
- Goldberg M, Fisher JA, Hood L, Hartwell L (2021) Genetics. From Genes to Genomes. 7th edition. McGraw-Hill (978-1260240870).
- Nicholl D.S.T. (2008) An introduction to Genetic Engineering. Cambridge University Press (3ª edición) ISBN-10: 0521615216.
- Primose SB, Twyman RM (2006) Principles of Gene Manipulation and Genomics. Wiley-Blackwell (an imprint of John Wiley & Sons Ltd); 7th Edition . ISBN: 978-1405135443.
- Stephenson F (2012) Cálculo en Biología Molecular y Biotecnología. Guía de matemáticas para el laboratorio. 2ª ed. Elsevier. ISBN 8490220913.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Krebs J, Goldstein E, Kilpatrick (2018) Lewin's Genes XII; Jones and Bartlett Publishers, Massachussets. ISBN: 978-1284104493
- Geoffrey M. Cooper (2018) The Cell: A Molecular Approach. 8ª Ed. Sinauer associates. ISBN: 1605357073
- Pierce, B.A (2017) Genetics Essentials: Concepts and Connections.(4rd Ed.).W. H. Freeman and Co. ISBN: 1319107222

Aldizkariak

Nature
Science
Nature Review Genetics

Interneteko helbide interesgarriak

<https://ocw.ehu.eus/course/view.php?id=445>

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GBIOLO30 - Biologiako Gradua**Ikastaroa** Zehaztugabea**IRAKASGAIA**

26816 - Ingurumen Mikrobiologia

ECTS kredituak: 4,5**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honen helburua mikrobioen abundantzia, nortasuna, dibertsitatea eta garrantzia ekologikoa biosferan ezagutzea da. Horretarako, laginketarako eta laginen prozesamendurako teknikak, mikroorganismoen arteko erlazioak eta komunikazioa, mikrobio-komunitateak ekosistema desberdinetan, beraien moldaera ingurugirora eta beraien betebeharrak ziklo biogeokimikoetan eta planetako bizitzan ikasiko dira.

Ingurumen Mikrobiologia egin baino lehen Mikrobiologia, Mikroorganismoen dibertsitatea eta Mikrobio Fisiologia irakasgaiak gaitututa edukitzea komenigarria da.

Irakasgai honetan lortuko diren gaitasunak oso erabilgarriak izango dira Biologiarekin erlazionaturiko ia edozein arlotan egin ahal izateko (ikerkuntza, nekazaritzarako elikagaien industria, ingurumena, hezkuntza).

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgaiaren gaitasun espezifikak

- Mikrobio-aniztasunaren oinarriak eta bere garrantzia biosferan ulertzea.
- Naturan mikroorganismoek buruturiko prozesuen garrantzia balioztatzea.
- Ingurumenean mikroorganismoen egoera fisiologikoa ezagutzea eta mikrobio-komunitateen dinamika ulertzea.
- Mikrobio-dibertsitatea interpretatzeko eta estimatzeko teknikak ezagutzea eta ulertzea.
- Ingurumen-mikrobiologiako laborategi batean lan egiteko gaitasunak ikastea, garatzea eta gauzatzea.

Irakasgaiaren zeharkako gaitasunak

- Analizatzeko, sintetizatzeko, antolatze eta planifikatzeko gaitasuna.
- Taldean lan egitea.
- Ahozko eta idatzizko komunikazioa.
- Arrazoibide kritikoa eta erabakiak hartzeko gaitasuna.
- Konpromiso etikoa eta ingurune-sentiberatasuna.

Irakasgaia ikastearen emaitzak

- Ingurumen mikrobiologian askotan erabilitako metodologiak erabiltzen ditu ur, lur eta airean mikrobioen abundantzia eta aktibitatea kuantifikatzeko.
- Mikrobio-ekologiaren arloan arazoen ebazpenerako txosten teknikoak idazten ditu eta ahozko aurkezpenak egiten ditu.
- Mikrobioen nortasuna, abundantzia, aniztasuna eta aktibitatea ekosistemen ezaugarriekin erlazionatzen ditu.
- Mikroorganismoen artean eta beste izaki bizidunekin mikroorganismoek garatzen dituzten harremanak desberdintzen ditu.
- Planetako bizitzarentzat mikrobioen garrantzia argudiatzen du.
- Taldean lana egiteko gaitasunak garatzen ditu.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

EGITARAU TEORIKOA

SARRERA

1. Historia-ikuspuntua eta gaur egungo ingurumen mikrobiologia

INGURUMENEAN MIKROORGANISMOAK AZTERTZEKO METODOAK

2. Ingurumen mikrobiologian ikasketa-estrategiak
3. Laginketa eta laginen prozesaketa
4. Mikroorganismoen isolamendua, detekzioa, zenbaketa, identifikazioa eta mikrobio-aktibitateen kuantifikazioa

MIKROBIOEN KOMUNITATEAK, KOMUNIKAZIOA ETA INGURUMENAREKIKO ERLAZIOA

5. Ekosistema naturaletan mikroorganismoen komunitateak
6. Mikroorganismoen komunikazioa
7. Ingurugirora mikroorganismoen moldapena

MIKROORGANISMOEN BIZILEKUAK ETA BERAIEI FUNTZIOA EKOSISTEMETAN

8. Ur-mikrobiologia
9. Lur-mikrobiologia
10. Aire-mikrobiologia
11. Ingurune antropizatua
12. Mikroorganismosak eta ziklo biogeokimikoak

EGITARAU PRAKTIKOA

Lur-mikrobiologia

1. Lur-mikroorganismoen behaketa
2. Bakterio eta onddo haritsu kultibagarrien dentsitatea
3. Lurrean deshidrogenasa aktibitatea

Ur-mikrobiologia

4. Bakterio guztien eta kultibagarrien dentsitatea
5. "Vibrio" kultibagarrien dentsitatea
6. Protozoek egindako harraparitza

Aire-mikrobiologia

- 7- Bakterio eta onddo kultibagarrien dentsitatea

METODOLOGIA

- Eskoletan irakasleak egingo duen teoriaren azalpena (M)
- Laborategiko praktikak (GL)
- Taldeka kasu praktikoen ebazpena (S eta M)
- Irakasgaiarekin erlazionaturiko gai espezifiko batzuen prestaketa, aurkezpena eta eztabaidatzea (S)
- Teoriari eta praktikei buruzko idatzizko proba (Azterketa)

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	25	5		15					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	10		12,5					

Legenda:

M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 62
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 18
- Talde lanak (arazo ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

ETENGABEKO EBALUAKETA

Eskola magistraletan azaldutako teoria idatzizko azterketa baten bidez ebaluatuko da. Azterketa honi azken notaren %50a dagokio.

Praktikak ebaluatuko dira hiru alderdi kontutan hartuz: norbanakako lanaren segimendu jarraiatua (%20a), emaitzen aurkezpena (%40a) eta azterketa finalaren proba idatzia (%40a). Praktiken balioari azken notaren %30a dagokio.

Taldean egindako lanen ebaluaziorako (proiektuak, jarduerak, buruketak, etab.) bai taldean lan egiteko gaitasuna, bai analizatzeko eta sintetizatzeko gaitasuna (talde-lan desberdinetan txosten idatziak eta ahozko aurkezpenak) kontuan hartuko dira. Atal honen balioari azken notaren %20a dagokio.

Etengabeko ebaluaketa honetan irakasgaia gainditzeko ikasleek gaindituta izan beharko dituzte oinarri teorikoak, praktikak eta taldeko lanak.

AZKEN EBALUAZIOA

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatutako izateko. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, eta horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita. Kasu honetan bukaerako proba bakarra (idatzitako azterketa) egingo zaio, irakasgaiko jakintzak eta gaitasunak bereganatu dituela egiazta dezan. Proba horrek, egiten den moduan egiten dela, irakasgaiko notaren %100 balio beharko du.

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoak. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoak jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

DEIALDIARI UKO EGITEA

Azterketen data ofizialaren probara ez etortzeak dakar automatikoki deialdiari uko egitea eta ez aurkeztearen kalifikazioa.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdian ohiko deialdia ebaluatzeko azaldutako irizpide berak erabiltzen dira. Kasu honetan, praktikak edota talde-lanak gaindituta izatekotan, haien notak mantenduko dira eta idatzizko proba besterik ez da egingo.

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoak. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoak jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

DEIALDIARI UKO EGITEA

Azterketen data ofizialaren probara ez etortzeak dakar automatikoki deialdiari uko egitea eta ez aurkeztearen kalifikazioa.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Laborategiko mantala, txostena, errotuladore iraunkorra

BIBLIOGRAFÍA

Oinarritzko bibliografia

- Kirchman, D.L. (2018). Processes in Microbial Ecology (2ª ed.). Oxford University Press.
- Pepper, I.L., Gerba, C.P., Gentry, T.J. (2015). Environmental Microbiology (3ª ed.). Elsevier Academic Press.
- Barton, L.L., McLean R.J.C. (2019) Environmental Microbiology and Microbial Ecology. Wiley-Blackwell.
- Gasol, J.M., Kirchman, D.L. (2018). Microbial Ecology of the Oceans (3ª ed.) Wiley.
- Madigan, M.T., Bender, K.S., Buckley, D.H., Sattley, W.M., Stahl, D.A. (2021). Brock Biology of microorganisms (16ª ed.). Pearson.
- Madigan, M.T., Martinko, J.M., Bender, K., Buckley, D., Stahl, D. (2015). Brock. Biología de los microorganismos (14ª ed.). Pearson.
- Pepper, I.L., Gerba, C.P. (2004). Environmental microbiology. A laboratory manual (2ª ed.). Elsevier Academic Press.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Schmidt, T.M., Schaechter, M. 2012. Topics in Ecological and Environmental Microbiology. Elsevier Academic Press.
- Schaechter, M. 2010. The Desk Encyclopedia of Microbiology (2. arg.). Elsevier Academic Press.
- Swanson, M., Joyce E.A., Horak R.E.A. (2022). Microbe (3ª ed.). ASM Press.
- Rosenberg, E. DeLong, E.F., Lory, S., Stackebrandt, E. Thompson, F. 2013. The Prokaryotic Communities and Ecophysiology. Springer.

Aldizkariak

Applied and Environmental Microbiology
Environmental Microbiology
Microbial Ecology
FEMS Microbiology Ecology

Interneteko helbide interesgarriak

American Society for Microbiology: <http://www.asm.org/>
Sociedad Española de Microbiología: <http://www.semico.es/>

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztu gabea

Plana GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztu gabea

IRAKASGAIA

26818 - Itsas Ekologia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Itsas Ekologia itsas ingurune eta organismoen eta beraien arteko elkarrekintzez arduratzen den Ekologiaren adarra da. Itsas ekologiaren deskribapen, esperimendazio eta gizakion sozio-ekonomiaren integrazioaren etapatan zeharreko itsas ekologiaren garapena erakusten da ikasgaiaren zehar. Ikasleak ozeanoetako, itsasoetako eta ibai eta lur-sistematarako trantsizio inguruneen aldakortasun eredu nagusiak ezagutzea, hala nola itsas bizitzaren aniztasuna, bere dibertsitatearen patroia global eta lokala eta bere biogeografia ezagutzea bilatzen da. Baita, bertan ematen diren prozesuak eta ziklo biogeokimikoekin daukaten erlazioa ezagutzea bilatzen da. Ekosistema nagusien egitura eta funtzionamendua azaltzen dira, hala nola baliabideen ustiaketa, kutsadura eta klima aldaketaren bidezko giza inpaktua eta gaur egungo itsas ekologiak baliabideen kudeaketa, biodibertsitatearen kontserbazioa eta itsas ekosistemen zerbitzuen balioztapenean egiten duen ekarpena.

Ikasgai hau aukeratuko duten ikasleek, ikasgaiak ahalik eta gehien baliatzeko, aurretiko Ekologia, Botanika, Zoologia eta Fisiologia ezagupenak izan beharko dituzte.

Ikasketa teoriko eta praktikoak sustatzen dituen ikasgai honetan eskuratutako ezagutza eta ahalmenek ikasleari esparru ezberdinetako lan-merkatuan txertatzen lagunduko diote, hala nola, oinarritzko zein goi-mailako irakaskuntza, aholkularitza zientifikoa eta teknikoa, baliabideen kudeaketa eta itsas ingurunearen kontserbazioa eta lan zientifikoetako jarduerak.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**BERARIAZKO KONPETENTZIAK:**

- ¿ Itsas ingurune eta organismoen berezitasunak eta hauek bereizten dituzten prozesu biotiko eta abiotiko nagusiak ezagutu
- ¿ Kostaldeko, ingurune pelagikoko, itsas hondoetako eta beste ingurune berezietako (estuak, ingurune polarrak eta abisalak) habitat nagusiak eta bertako komunitateak identifikatzea.
- ¿ Ekosistema pelagiko eta bentoniko nagusien eta beraien elkarrekintzen funtzionamendua ulertzea.
- ¿ Itsas ekosistemen zerbitzuak ezagutu, bereziki baliabide bizen eskuratzeko eta kudeaketari dagozkionak.
- ¿ Itsasoko ingurune-arazo nagusiak, beraien kausak eta hauek zuzendu edo gutxitzeko neurriak identifikatu eta baloratu.
- ¿ Itsasoko ikerketan Ingurune-aldagaiak neurtzeko, organismoak lagintzeko eta datuen tratamendurako trebetasun tekniko eta pertsonala eskuratzeko.

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

- ¿ Datu-sortetatik garrantzizko informazioa eskuratu, interpretatu eta baliozko ondorioak atera.
- ¿ Itsas Ekologiaren berezko hizkuntza zientifiko-teknikoa erabiliz, idatziz zein ahoz, ideiak transmititzea modua argi eta sendoan.
- ¿ Banako mailan zein talde-lanean arazoak konpontzen eraginkor izatea.
- ¿ Izaera kritikoa eta ezagutzaren dibulgaziorako ahalmenak garatu.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**TEORIA-EGITARAUA****I. Atala. Orokortasunak****1. Itsas Ekologiaren garapena**

Konpetentziak. Itsas ingurunearen ikasketa: etapak. Zentroak eta instituzioak. Landa eta laborategi azpiegiturak. Neurketa eta detekzio metodoak: azken aurrerapenak.

2. Itsas ingurunea

Itsas ingurua. Ingurune-ereduak: aldagai fisiko eta kimiko nagusiak. Zirkulazioa. Mareak. Itsas hondoak. Itsas ingurunearen zonazioa.

3. Organismo eta komunitateak

Habitaten arabera itsas biotaren sailkapena. Planktona, nektona eta bentosa: osaera eta azterketarako metodoak. Biodibertsitate globala. Itsas biogeografia.

4. Prozesuak

Ekoizpen primarioa: faktore mugatzaileak. Eredu globalak. Deskonposizio mikrobianoa. Mikroorganismo gakoak. Ekoizpen sekundarioa. Ekoizpen sekundarioaren gidariak. Ekoizpen primario eta sekundarioaren neurketa.

II. Atala. Sistemak**5. Estuarioak**

Sailkapena eta motak. Habitat eta komunitateak: zonazioa. Biodibertsitate patroiak. Ekoizpena: baldintzak. Materia fluxuak. Bestelako sistema gazikarak.

6. Padurak, mangladiak eta itsas larreak

Banaketa globala. Padura eta mangladiak: komunitateak, zonazioa eta bazka-sareak. Itsas larreak: komunitateak eta bazka-sareak. Bioeskualdeak eta dibertsitatea.

7. Substratu gogor eta biguneko kostaldeak

kostaldearen ezaugarriak: ingurune-gradienteak. Substratu gogorreko komunitateak: zonazioa eta egitura trofikoak. Kostaldeko sedimentuetako organismoen antolaketa eta funtzioak. Elkarrekintzak komunitate pelagikoekin.

8. Plataforma kontinentaleko ohantzeak

Ingurunearen ezaugarriak. Komunitateen karakterizazioa. Biotaren eginkizun funtzionala. Bazka-sareak. Habitat espezifikak.

9. Korall arrezifeak

Ezaugarriak eta garrantzia. Banaketa eta garapena. Antzinatasuna eta dibertsitatea. Korallak eta koralezko komunitateak. Ekoizpena eta bazka sareak. Arrezifeen hazkunde eta biohigadura.

10. Ekosistema pelagikoak

Ingurune ezaugarriak. Saillapena. Aldakortasun espaziala eta denboran zeharrekoa. Planktoneko segida. Erregimen aldaketak. Transferentzia trofikoak. Ekoizpen primario eta arrantza arteko lotura.

11. Ozeano sakona

Ingurune ezaugarriak. Bazka sarrera. Itsaso sakoneko organismoak. Haize hidrotermalak eta ozeano sakoneko irlak

12. Eskualde polarrak

Artiko eta Antartikoaren arteko aldeak. Bizitza izotzean. Izotz-itsasoaren ertzak. Bentos-plankton arteko akoplamendua. Endemismoa eta erraldoitasuna ur polarretan. Hegaztiak eta ugaztunak

III. Atala. Giza jarduerak

13. Baliabideen ustiaketa

Motak. Arrantza: espezieak. Arrantza metodoak: eragin kaltegarriak. Arrantza stock-aren ebaluazioa. Kudeaketa prozesua. Akuikultura: espezieak, hazkuntza sistemak eta inpaktuak. Bioteknologiaren zeregina.

14. Ingurumen-inpaktuak

Asalduren paper ekologikoa. Itsas kutsadura: motak eta eraginak. Klima aldaketa. Faktoreen arteko elkarrekintzak. Inpaktu ebaluazioa.

15. Kontserbazio eta errehabilitazioa

Itsas ekosistemen balioa. Kontserbazioaren ekonomia. Kontserbaziorako politika eta legeria. Kontserbazioa neurriak. Itsas ekosistemen errehabilitazioa.

PRAKTIKEN PROGRAMA

I. Landa praktikak

1. Marearteko habitaten deskribapena eta komunitateen laginketa

Itsasbeheran, marearteko habitaten ezaugarri fisiko eta biotikoen behaketa. Heterogeneotasun espaziala zehaztea eta komunitateen laginketa estratifikatua egitea

2. Kostaldeko ekosistemen habitat eta komunitateak eta giza eragina

Kostaldeko sistema batetik ibilbidea, habitatak, komunitateak eta giza jarduerak identifikatzen, eta kontserbazio egoera eta giza eragina baloratzen.

II. Laborategi praktikak

1. Plankton laginen analisi taxonomikoa eta kuantitatiboa

1.1 Mikroplankton komunitateko taxonak identifikatu mikroskopio optikoaren bidez

1.2 Mesozooplankton taxonen azterketa. Alikuotak lortzea. Estereomikroskopioarekin behaketa.

Gidekin identifikazioa eta Bogorov plaketa kontaketa.

2. Marearteko komunitate bentikoen analisi taxonomikoa eta kuantitatiboa

Estereomikroskopioarekin behaketa. Gidekin identifikazioa.

III. Ordenagailu praktika

1. Itsasoko eta itsasadarreko inguruneetan aldagaien erlazioaren analisiak.

Sasoi eta habitat ezberdinetan ur zutabearen neurtutako aldagai abiotiko eta biotikoen aldaketa bertikalak irudikatu.

METODOLOGIA

Ikasgai honen irakaskuntza metodologian barne daude:

¿ Eskola magistralak:

Ikasgaiaren eduki teorikoen transmisioa bilatzen da gaien ahozko aurkezpenaren eta ikusi-entzutezko bitartekoen bidez.

Aldi berean, ikasleekin elkarrekintza lantzen da planteatutako galdera eta eztabaiden bitartez

¿ Mintegiak

Helburuak ikasleentzako: (1) Itsas Ekologiako gaur egungo gaiak prestatzea, (2) aurkeztea eta (3) gai horiei buruz galderak erantzutea

¿ Landa Praktikak

Helburuak ikasleentzako: (1) Behaketa eta habitat/komunitateak identifikatzeko gaitasunak garatzea (2) Laginketa

estratifikatuak egitea (3) Giza jarduerak identifikatu eta eragina ebaluatzeko gaitasunak garatzea

¿ Laborategi praktikak

Helburuak ikasleentzako: (1) Mikroskopia erabiltzea itsas organismoak analizatzeko (2) Organismo planktonikoak eta bentikoak identifikatzeko gidak erabiltzea (3) Fitoplankton, zooplankton eta marearteko komunitateen organismo nagusiak ezagutzea

¿ Ordenagailu praktikak

Helburuak ikasleentzako: (1)) datu tratamenduan eta irudikapenean trebatzea baliabide informatikoak erabiliz eta (2) ondorio baliadunak lortzeko emaitzak miatzeko eta interpretatzeko gaitasunak garatzea.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	36	4		6	2				12
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	54	6		9	3				18

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 40
- Test motatako proba % 30
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 25
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 5

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio Sistema:

1. Ebaluazio jarraitua

Lauhilabetekoa bukatzean, ezarritako datan, azken notaren %70 balioko duen idatzizko azterketa egingo da, erantzun anitzeko test galderak, galdera labur eta eskemen interpretazioz osatuta. Bestalde, azken notaren %25 balioko duen praktiken inguruko idatzizko txostenak aurkeztuko dira. Azkenik, notaren %5 balio duen mintegietako gai baten ahozko aurkezpena ebaluatuko da. Irakasleak ahozko aurkezpenaren bikaintasuna apartekoa dela deritzonean, ikasleak 0,5 punturainoko plus bat lor dezake, beti ere nota totala 10 (10etik) gainditu gabe.

Praktiketako txostenen nota baliagarria izan dadin, azterketa teorikoa gainditzea (gutxienez 5 10etik) beharrezkoa izango da.

Praktikak gainditzeko praktika saioetan parte hartzea derrigorrezkoa da eta gainditu gabe geratuko dira, landa, laborategi edo mintegi saioetan justifikazio barik parte ez hartzeagatik, ikasturte hasieran ezarritako epean praktiken txostena ez auzteagatik edo praktiken txostenean gutxienezko nota (5 10etik) ez lortzeagatik. Praktikak gainditzeko ez diren kasuan, praktiken txostena berriz aurkeztu ahal izango da ezohiko deialdian.

Erantzunen zuzentasuna, zehaztasuna eta planteamenduen koherentzia baloratuko dira. Praktiken txostenaren kasuan, gainera, bere egokitzapena zientzia-estandarretara ere baloratuko da.

Ikasleak ebaluazio jarraituari uko egiteko eta ebaluazio finala hautatzeko idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari 9 asteko epean ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita.

2. Ebaluazio finala

Ebaluazio finala aukeratzen duten ikasleek egin beharreko azterketak zati bi izango ditu, programaren eduki teorikoaren idatzizko azterketa eta eduki praktikokoaren inguruko proba praktikoa egingo dute. Erantzun anitzeko test galderak, galdera laburrak, eskemen/irudien interpretazioa izango dute eduki teorikoaren zatian eta ariketa praktikokoak eduki praktikokoaren atalean, azken honetan laborategiko proba bat ere egon daiteke. Teoriari dagokion atala azken notaren %70 izango da eta praktikei eta aurkezpenei dagokien atala %30.

Praktiketako atalari dagokion nota baliagarria izan dadin, teoriari dagokion atala gainditzea (gutxienez 5 10etik) beharrezkoa izango da.

3. Ebaluazio probetan bete beharreko arautegia

Irakasgaiako ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

4. Deialdiari uko egitea

Ebaluazio jarraitu zein finalaren kasuan, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa <<Ez Aurkeztua>> izan dadin.

5. Jarduera etikoari buruzko oharra

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

EZOHICO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio Sistema:

1. Ebaluazio jarraitua

Ez-ohiko deialdian ohiko deialdiko idatzizko azterketa mota berdina egingo da eta balorazio sistema berdina jarraituko da, praktiketako txostenaren eta ahozko aurkezpenaren kalifikazioak mantendu ahal direlarik.

Praktiketako txostenak gaindituta badaude, ohiko deialdian lortutako kalifikazioa gorde edo txosten berriak aurkeztu ahal izango dira.

Ahozko aurkezpenaren nota ohiko deialdian lortutakoa izango da.

Idatzizko azterketa gaindituta badago, ohiko deialdian lortutako kalifikazioa gorde daiteke eta praktiketako txostenak soilik aurkeztu.

2. Ebaluazio finala

Ohiko deialdiko sistema berdina.

3. Ebaluazio probetan bete beharreko arautegia

Ohiko deialdiko berdina.

4. Deialdiari uko egitea

Ebaluazio final zein jarraituaren kasuan, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa <<Ez Aurkeztua>> izan dadin.

5. Jarduera etikoari buruzko oharra

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Praktiketako gidak, teoria eskoletan irakasleak ematen dituen diapositibak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarritzko bibliografia

- Baretta-Bekker, H. J. G., Duursma, E. K. & Kuipers, B. R. 1998. Encyclopedia of Marine Sciences. Springer.
Castro, P & Huber, M. 2012. Marine Biology. McGraw-Hill.
Kaiser et al., 2011. Marine Ecology: processes, systems and impacts. Oxford University Press.
Lalli, C.M. & Parsons, T.R. 2000. Biological oceanography: an introduction. Butterworth- Heinemann.
Levinton, J.S. 2009. Marine biology. Function, biodiversity, ecology. Oxford University Press.
Nybakken, J.W. & Bertness, M.D. 2005. Marine biology: an ecological approach. Benjamin Cummings.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Borja, A. & Collins M. 2004. Oceanography and Marine Environment of the Basque Country. Elsevier.
Carter, R.W.G. 1988. Coastal Environments. An Introduction to the Physical, Ecological and Cultural Systems of Coastlines. Academic Press.
Longhurst, A. 1998. Ecological Geography of the Sea. Academic Press.
McLusky, D. S. & Elliott, M. 2006. The Estuarine Ecosystem. Ecology, Threats and Management. Oxford University Press.
Stenseth, N. Ch., Ottersen, G., Hurrell, J. W. & Belgrano, A. 2004. Marine Ecosystems and Climate Variations. Oxford

University Press.

Trujillo, A. P. & Thurman, H. V. 2014. Essentials of Oceanography. Prentice Hall.

Rallo, A. & Orive, E. 2004. El litoral marino de Bizkaia. Bizkaiko itsasaldea. Instituto de Estudios Territoriales. Diputación Foral de Bizkaia.

Aldizkariak

Botanica Marina

Journal of Experimental Marine Biology and Ecology

Journal of Marine Pollution

Journal of Marine Systems

Journal of Plankton Research

Journal of Sea Research

Limnology and Oceanography

Marine Ecology Progress Series

Interneteko helbide interesgarriak

(www.mhhe.com/castrohuber6e)

(www.oxfordtextbooks.co.uk/orc/kaiser)

(www.prenhall.com/thurman)

(www.oup.com/us/levinton)

(www.aw.com/nybakken)

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztu gabea

Plana GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztu gabea

IRAKASGAIA

26808 - Landare Baskularren Dibertsitatea

ECTS kredituak: 4,5

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Rodriguez C, Ballesteros E, Boisset F, Afonso-Carrillo J. 2013. Guía de las macroalgas y fanerógamas marinas del mediterráneo occidental. Ed. Omega
Webster J. 1980. Introduction to Fungi (2 ed). Cambridge University Press.

Aldizkariak

- <http://authors.elsevier.com/>
<http://www.nature.com/cgitaf/DynaPage.taf?file=/nature/journal/v388/n6642/index.html>
<https://www.recursoescientificos.fecyt.es/>
<http://www.zientzia.net/elhuyar.asp> [Elhuyar aldizkaia]

Interneteko helbide interesgarriak

Onddoak:

- <https://www.aranzadi.eus/eu/bilatzaile-mikologikoa/argazki-galeria>
<http://guiahongosnavarra1garciaabona.blogspot.com/http://www.mykoweb.com/>
<http://www.indexfungorum.org/Names/Names.asp>
<http://www.mycolog.com/> [The fifth Kingdom on-line]

Algak:

- <http://www.algaebase.org/>
<http://www.asturnatura.com/asturnaturaDB/Flora/Flora.php>
<http://www.seaweed.ie/qanda/index.php>

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

26807 - Ornodunak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ornodunak Biologia graduako hautazko irakasgaia da. Oro har ornodunen aniztasuna eta eboluzioaren historia ezagutzea du helburu nagusia. Eredu anatomiko eta funtzionalak ingurumen itsastar, ur gezetako eta lehortarrekiko moldatze-prozesuekin lotuta aztertzen dira.

Ikasturtean honetan ikasgaia Joxerra Aihartza irakasleak emango du.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

A) Gaitasun espezifikokoak. Ikastaroan zehar ikasleak ondoko gaitasunak eskuratuko ditu:

- 1-. Ornodunen eredu anatomiko orokorraren eta bere aniztasun morfologiko eta funtzionalen ulermena.
- 2-. Ornodunen animalia taldeko eboluzio-lerro nagusien ezagutza, bai osatzen duten talde garrantzitsuenen eboluzioari dagokionez, bai eta haien sistema anatomiko eta funtzional ezberdinen mailan ere.
- 3-. Ingurune ezberdinekiko moldaera eta aurre-moldaerak bereiztea, hauek ornodunen bizimoduetan maila ekologiko eta funtzionalean dituzten eraginak eta mugak ikusi eta kontutan izanik.
- 4-. Ornodunen aniztasunaren ikuspegi orokorra lortzea maila ezberdinetan, bai talde nagusienei begira, bai eta haien ekomorfologia, jokabide eta historia naturalei dagokionez ere.
- 5-. Gure inguruko ornodun itsastar nahiz kontinentalen arteko espezie arruntenak edo bereizgarrienak identifikatzea, mendian eta laborategian erabiltzen diren identifikazio eta laginketa-teknika arruntenekin jarduten ikasiz.

B) Gaitasun orokorrak:

- 1-. Gai zehatzen inguruko informazio zientifikoaren bilaketa eta azterketa, eta lortutako emaitzen aurkezpen publikoa.
- 2-. Gai zientifikoei buruzko eztabaida-taldetan parte-hartzea.
- 3-. Bioaniztasuna eboluzioaren ondorio gisa, eta haren kontserbazioaren garrantzia ulertzeko gaitasuna.

C) Zeharkako gaitasunak

Irakasgai honetan hainbat zeharkako gaitasun lantzen dira, hala nola:

- Bioaniztasunaren kontserbazioarekiko konpromezu etikoa garatzea ahalbidetuko duen oinarri zientifikoko arrazoibide kritikoaren garapena.
- Talde-lana erraztuko duten pertsonarteko harremanetarako trebetasunak lantzea.
- Ikasketa autonomo jarraiturako tresnak garatzea, beti ere iniziatiba, berrikuntza, kalitatearekiko grina eta ingurumenarekiko sentiberatasuna sustatuz.
- Datu eta informazio biologikoa aztertu, interpretatu eta sintetizatzeko gaiatasuna.
- Gaiarekiko egokia den terminologia oinarri, ahozko eta idatzizko komunikazioa lantzea. Txosten zientifiko-teknikoak idaztea, oinarri zientifikoa duten informazio iturriak erabiltzea.

Lortutako baliabideak baliagarriak izango dira graduatuarentzat maila profesionalean, haren gaitasunak hobetuko baitituzte pentsamendu kritikoan, komunikazioan, eta naturarekiko oinarritzko ezagumenduan, besteak beste. Hauek guztiak Biologia ikasketetako lizentziatuek normalean bilatzen dituzten lan merkatuko hainbat arlotan eskatutako gaitasunak dira: ingurumen-aholkularitza eta ingeniartzan, laborategiko analisietan, batxilergoko irakaskuntzan, etab.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**EDUKIN TEORIKOA**

Ikasgelan landuko da, oro har hiru orduz astean.

Lehen atala: Ornodunen definizioa, deskripzioa eta kokapen filogenetikoa Kordatuen artean, eta haien arteko talde nagusienak. Enbrioiaren garapena eta ontogeniaren laburpena. Hezurraen jatorria eta dibertsitatea, Ornodunen ehun bereizgarri gisa.

Bigarren atala: Eskeletoa eta sistema muskularra soilik aztertuko dira eskola teorikoetan, haien anatomia, morfofuntzionaltasuna eta ekomorfologia, eta egitura eta lokomozioaren arteko elkarrekintza landuz.

Hirugarren atala: Ornodun goiztiarrak eta arrainak. Ornodunen jatorria eta desberdintzapen goiztiarra. Talde fosilak.

Egungo forma agnatu eta gnatostomatuak. Arrainen eredu anatomiko eta morfofuntzionalak. Talde nagusien eboluzioa. Aniztasun filogenetiko, morfologiko eta ekologikoa: egungo kondrktie eta osteiktiek.

Laugarren atala: Ornodun lehottarrak: ingurumen lehottarren konkista. Tetrapodo goiztiarrak eta egungo anfibioak.

Izaera amniotoa: eboluzio-lerro nagusien ezaipena.

Bosgarren atala: Amnioto sinapsidoen eboluzioa eta ugaztunen garapena. Monotrema, Martsupialio eta Plazentalioen ugalketa-ereduen eboluzioa. Egungo ugaztunen ezaugarriak: aniztasuna eta ekomorfologia.

Seigarren atala: Diapsidoen eboluzioa. Kelonioak. Mesozoikoan diapsidoek izandako dibertsifikazioa. Arkosauroidak:

Krokodiloak, pterosauroidak eta dinosauroidak. Hegaztien jatorria eta dibertsifikazioa. Hegaztien ezaugarriak: anatomia,

morfofuntzionaltasuna eta ekologia. Lepidosauroidak: talde fosilak eta egungoak. Musker, suge eta anfibien sinapsidoen ezaugarri morfologiko eta ekologikoak.

IDATZIZKO LANA

- Ikasle bakoitzari (edo binaka taldearen tamaina handiegia bada) ornodun fosil atxikiko zaio, bere balizko anatomia biguna aztertu eta eztabaida dezan. Hau irakaslearen laguntzaz, eta mintegietan parte hartuz bideratuko da.
- Fosilaren anatomia biguna modu arrazoituan inferitzeko, ikasleak egungo ornodunen anatomia bigunari buruzko informazioa osoa erabili beharko du, bertan talde filogenetiko ezberdinetako dibertsitatea, eta ingurunearekiko eta funtzio ezberdinekiko moldaerak kontutan izanik.
- Ikasturtearen amaieran ikasleak 10 orrialdeko idazlana aurkeztuko du, bere fosilaren anatomia bigunaren hipotesi arrazoitua azalduz, berau eraikitze erabilitako bibliografiaren zerrendarekin batera.
- Idazlana egikartzeko argibide zehatzak ikasturtearen lehen astetan eskeiniko dira, bai eskola orduetan, bai eta eGelan eskainiko diren dokumentuetan.
- Gutxi gorabehera 8. asterako, ikasleak, irakaslearekin batera, fosilaren oinarri ekologiko eta filogenetikoak ezarriko ditu. Eta saiakera bere azken forman aurkeztuko da 15. astean.

MINTEGIAK

- Guztira ordu beteko 5 mintegi egingo dira ornodunen anatomia konparatua lantzeko lagungarri, hala nola: tegumentua, arnasketa-sistema, digestio-sistema, zirkulazio-sistema, gernu-sistema, ugalketa-sistema, zentzumen-organoak eta nerbio-sistema.
- Mintegi hauek lotura estua dute ikasturtearen azkenean ikasleak aurkeztu beharreko anatomiazko idazlanarekin. Beraz, ikasle bakoitzak (edo binaka taldearen tamaina handiegia bada) ikasturtearen hasieran esleituko zaion ornodun fosilaren anatomia konparatua landuko/inferituko du, sistemaz sistema, bibliografian eta egungo ornodunen anatomian oinarrituta.
- Mintegiak ikasturteko 6. - 10. asteetan egingo dira.

EDUKIN PRAKTIKOAREN EGITASMOA LABORATEGIKO PRAKTIKAK (8 ordu):

- 1.- Ornodunen arteko talde nagusien eskeletoen azterketa eta konparazioa. Ezaugarri morfofuntzionalen azterketa. 2 ordu.
- 2.- Arrainen ezagutza eta identifikazioa laborategian. Espezieen identifikazio baliabide morfologikoak. Disekzioa eta barne-anatomiaren azterketa. 2 ordu.
- 3.- Ugaztunen identifikazioa laborategian. Kranioetria eta espezieen kranioen bitarteko identifikaziorako teknika eta baliabideak. 2 ordu.
- 4.- Estrategia trofiko ezberdinak dituzte ornodunen eskeletoen azterketa ekomorfologiko eta funtzionala. Moldapenak, espezializazioak eta konbergentzia ebolutiboak.

MENDI-IRTEERAK (7 ordu):

- 1.- Aquariumera bisita. Arrainen gorputz-eredu, igeriketa-eredu, eta portaerazkoen azterketa. 2 ordu.
- 2.- Mendiko irteera. Ornodun lehortearen laginketa eta identifikazioa. Espezie arrunten identifikazioa zuzeneko metodoen bitartez (bisuzko identifikazioa) edo zeharkakoez (arrastoz, lortatze, seinalez). 5 ordu. Datak aldakorak dira eta beste ikastaroekin koordinatzearen arabera dira.

METODOLOGIA

Eskola teorikoak fakultateak esleitutako ikasgela eta ordutegian emango dira. Laborategi-praktikak 0.38 edo 0.39 laborategietan.

Ikasgaiaren egitaraua eta bilakaera, egutegia, betekizunak, epe eta data garrantzitsuak, praktiketako gidak, idatzizko eta bisuzko azterketen adibideak, eskola teorikoetako aurkezpenen pdf kopiak, kanpoko estekak, bideoak eta gainerako dokumentazio osagarria, eskuragarri izango dira ikasturtearen hasieratik eGelako plataforman. Bertarako lotura ere ikasturtearen hasieran eskainiko da, urtero aldatzen baita.

Irakaslearen bulegoa F1.S2.15 helbidean dago. Aurrez-aurreko tutoretzak izateko, GAURen adierazitako tutoretza ordutegia erabil daiteke, edo emailaz adostu honako helbidean: joxerra.aihartza@ehu.eus

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	40	5		8					7
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	60	15		12					3

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60

- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 30
- Aleen ikusmeneko ezagutza eta identifikazioa % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Idatzizko azterketa (%60)
 Mintegietako Zereginak (bakarka edo binaka, taldearen tamainaren arabera) (%30)
 Bisuzko azterketa (%10)

Ikasleak Mintegietako Zereginetan parte hartzeari uko egin ahal dio, idatzi bat aurkeztuz irakasgaiaren ardura duen irakasleari ikasturtea hasi eta bederatzi asteko epea igaro aurretik. Halako kasuetan, ohiko deialdiko frogara idatzizko Mintegietako Zereginei dagozkien gaiak ere ebaluatuko ditu.

Azken frogara ez aurkezteak ebaluazio deialdiari uko egitea erakarriko du eta Ez Aurkeztua bezala agertuko da.

Goian aipatutako ebaluazio moduak, atalka edo erabat modalitate ez presentzialera egokitzeko aukera egon daiteke, egoera sanitario edo bestelakoen ondorioz, ebaluazioa modalitate horren arabera burutzea behar balitz.

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoaz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Aparteko deialdian idatzizko azterketak ebaluazioaren %80ko balioa izango du, eta Mintegiekin Zerikusia duten gaiak ere barneratuko dira bertan (Anatomia Konparatua); gainerako %20a bisuzko azterketak osatuko du.

Azken frogara ez aurkezteak ebaluazio deialdiari uko egitea erakarriko du eta Ez Aurkeztua bezala agertuko da.

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoaz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Zoologia Laborategian diren ornodunen egiazko eta erreplikazko bildumak.
 Ikasturtean aztertutako ornodun talde gehientsuenen adibideak biltzen dituen 27/7 erakustokia, 038 eta 0.39 laborategien ondoko korridorean.
 Prismatiko eta teleskopioak.
 Hegazti eta Herpetofaunaren gidak.
 Ugaztunen kranioen eta arrainen identifikaziorako propio eraikitako gidak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- Ornodunak. Anatomia, Eboluzioa eta Aniztasuna. J. AIHARTZA (2010). Udako Euskal Unibertsitatea.
- Vertebrate Life. F. H. POUGH, C. M. JANIS & J.B. HEISER (2013). Pearson Education, International Edition.
- Vertebrates: Comparative Anatomy, Function, Evolution. K. V. KARDONG (2006). McGraw-Hill.
- Functional Anatomy of the Vertebrates. An evolutionary perspective". K. F. LIEM, W. E. BEMIS, W. F. WALKER jr. & L. GRANDE (2001). Brooks/Cole, Thomson Learning Inc.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Evolution. What the Fossils Say and Why It Matters. D.R. PROTHERO (2007). Columbia Univ. Press.
- Vertebrate Palaeontology. M.J. BENTON (2005). Blackwell Science Ltd.
- Vertebrate Biology. D. LINZEY (2001). Mc Graw Hill.
- Vertebrate Zoology. An experimental field approach. N.G. HAIRSTON (1994). Cambridge University Press
- Your Inner Fish. N. SHUBIN (2008). Vintage Books, New York..
- The Ancestor's Tale. A Pilgrimage to The Dawn of Evolution. R. Dawkins (2004) Houghton Mifflin Co, London
- Anatomia Comparada. A. S. ROMER & T.S. PARSONS (1981). Interamericana.
- The book of the shark. K. BANNISTER (2004). Eagle Editions.

- . Biology of Amphibians. DUELLMAN & TRUEB (1986).
- . Herpetology. F.H. POUGH, R.M. ANDREWS, J.E. CADLE, M.L. CRUMP, A.H. SAVITZKY & K.D. WELLS (2004). Pearson Prentice Hall.
- . Lizards. Windows to the evolution of diversity. E.R. PIANKA & L.J. VITT (2003). University of California Press.
- . Snakes of the world. S. WEIDENSAUL (2004). Eagle Editions.
- . Crocodiles & Alligators of the world. D. ALDERTON (1998). Facts on File Inc.
- . Mamíferos. Manual de Teriología. K. KOWALSKI (1981). H. Blume Ediciones.
- . European Mammals. Evolution and Behaviour. D. MACDONALD (1995). HarperCollins Publishers.
- . Sexua eboluzioaren motore. Ugal-estrategiak joko ebolutiboan. A. ELOSEGI (1995). Elhuyar.
- . Hegaztien migrazioak. J. LARRAÑAGA (1998). Elhuyar.
- . Basabizitzaren kudeaketa. I. GARIN & A. ELOSEGI (Eds) (2000). Udako Euskal Unibertsitatea.
- . Zoologia Orokorra. A. I. PUENTE & K. ALTONAGA (2005). Udako Euskal Unibertsitatea
- . Eboluzioaren norabideak. M. AIZPURUA, K. ALTONAGA, M.J. BARANDIARAN, I. IRAZABALBEITIA, J.M. TXURRUKA & A. RODRIGUEZ (1985). Elhuyar.

Aldizkariak

Galemys, Revista de la SECEM (Sociedad Española para la Conservación y Estudio de los Mamíferos)
 Ardeola, Revista de la SEO/ Birdlife (Sociedad Española de Ornitología)
 Animal Biodiversity and Conservation
 Quercus (divulgación científica)

Interneteko helbide interesgarriak

Animals with backbones Ph. Janvier 1997. Tree of Life web Project. <http://tolweb.org/Vertebrata>
 Mammal species of the World. <http://www.bucknell.edu/msw3/>
 List of endangered species of the World. <http://www.iucnredlist.org/>
<http://animaldiversity.ummz.umich.edu/site/index.html>
<http://www.iucnredlist.org/>
<http://www.fishbase.org/search.php>
<http://www.elasmo-research.org>
<http://www.bucknell.edu/msw3/>
<http://www.arkive.org/>

OHARRAK

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea

Zikl. Zehaztu gabea

Plana GBIOLO30 - Biologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztu gabea

IRAKASGAIA

26823 - Zelulen Biologia Molekularra

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Zelula eukariotoaren eta bere konpartimenduen funtzionamenduaren ezagupen sakon eta zabala eskeini nahi da. Zelularen kontzeptu dinamiko, molekular eta hiru dimentsiotakoa ulertu behar da eta Biologia Zelularrak gaur eguneko garrantziaz jabetu behar da ikaslea eta baita dituen irtenbide profesionalak ere. Zelulen Biologia eta Ehunen Biologia irakasgaiak aldeztu aurretik eginda izatea gomendatzen da.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

- Ezagutu zelula eukariotoaren egitura, zeregina zein osaketa molekularra zeintzuk diren, eta hiru kontzeptu hauek zelularen testuinguru kontzeptual bakar eta dinamiko batetan uztartzen jakiteko gaitasuna eskuratzea.
- Ezagutu metazooen garapena eraentzen dituzten oinarritzko mekanismoak, zelulen hazkuntza prozesuetan hasiz eta zahartzapen zein zelularen heriotza prozesuetan bukatuz.
- Ezagutu zelulen desberdintzapena zelulen espezializaziora daramala.
- Identifikatu zelula eukariotoaren ikerketa estruktural zein molekularra ahalbidetzen dituzten teknikak.

ZEHAZKAKO GAITASUNAK

- Biologiako datu eta informazio ezberdina ebaluatu, interpretatu eta laburtu.
- Biologiaren irakaskuntzarako eta beronen hedapenerako beharrezko diren ezagutzak era egokian komunikatu hezkuntzako maila guztietan.
- Ama-hizkuntzaren idatzizko zein ahozko adierazpenean aurrera egitea eta era berean, komunikazio zientifikorako ingelesaren erabilera suspertzea.
- Informatikaren esparruko ezagutzak hobetzea, modu honetan datu zientifikoen kudeaketa egokia eta informazio iturrien erabilera egokia ahalbidetzeko.
- Hezkuntza sisteman biologiaren inguruko edukiak irakasteko beharrezko eta oinarritzko kontzeptuak era egokian komunikatzea.
- Produktu kimiko zein biologikoak era seguruan manipulatzea eta ingurune-eraginak ekidin.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**EGITARAU TEORIKOA**

1. SARRERA. Zelularen kontzeptuaren eboluzioa. Zelulen Biologiaren testuingurua. Gaur egungo teknikak Zelulen Biologian.
2. ZELULEN EBOLUZIOA. Bizidunen eta lehen zelulen sorrera. Eboluzio prebiotikoa. Zelula prokariotikoen eboluzioa. Lehen zelula eukariotikoa. Zelulaniztasunaren eboluzioa. Genomaren eboluzioa. Genoma, gene eta transkripzio-unitatearen kontzeptua. DNA kodetzailea eta ez-kodetzailea. Genomaren eboluzioaren mekanismoak.
3. ZELULEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA. Sarrera: zelulen arteko komunikazioari buruzko orokortasunak. Zelulen seinaleztapen mekanismoak. Zelula barneko hartzaile bidezko seinaleztapena. Seinale-transdukzioa. Zelularen gainazaleko hartzaileen bidezko seinaleztapena: G proteinei gardainaturiko hartzaileak eta bigarren mezulariak; ioi-kanalak; hartzaile katalitikoak. Bestelako seinaleztapen-sistemak. Seinaleztapen-sistemen arteko elkarrekintzak: zelula neuorepitelialak.
4. ZELULEN ATXIKIDURA ETA MUGIMENDUA. Zelulen atxikiduraren mekanismo molekularra: immunoglobulinen superfamilia, kaderinak, integrinak, selektinak, proteoglikanoak. Zelulen atxikiduraren garrantzia garapen enbrionarioan, hanturan, odolbatuaren eraketan eta minbizian. Zelulen mugimenduaren mekanismoak: aktinazko kortikaren tentsioa eta substratuarekiko atxikidura, ziklo endozitotikoa. Polaritatearen sorrera zelula mugikorretan. Mikropiru eta mikrotubuluaren garrantzi erlatiboa zelulen mugimenduan. Kimiotaxia.
5. ORGANULUEN BIOGENESIA. Organuluetaranzko proteinen sarrera-mekanismo orokorrak. Seinale sekuentziak eta proteinen patua. Proteinien tolespena eta mihiztapena. Proteinien birziklatzea: ubikuitinaren seinalea eta degradazio proteolitikoa proteasoman. Nukleo, mitokondria/kloroplasto eta peroxisomen biogenesia.
6. BESIKULEN BIDEZKO GARRAIOA. Garraio-besikulen eraketa, konpartimendu-identitatearen mantentzea, besikularen garraioa, mintzen fusioa. Garraio-besikulen bideratze mekanismoak. Garraio-besikula motak: klatrinaz, koatomeroz, kabeolinaz gaineztatuak. Garraioaren norabidea: Rab, SNAREs eta NSF. Zitoskeletoaren zeregina.
7. ZELULEN ZIKLOAREN ERAENKETA. Berriztapen zelularren kontzeptua. Zelulen hazkuntzaren faseak. Eraenketa: une kritikoak. Zelulen zikloaren proteina eraentzaileak: ziklinak eta ziklinen menpeko kinasak. Hazkuntza faktoreak.
8. ZELULEN DESBERDINTZAPENA. Zelulen determinazio eta desberdintzapena. Genomaren konstantzia. Gene-espresio diferentziala. Indukzio eta konpetentzia. Oroimen nuklearra. Inpronta genetikoak eta DNAREN metilazioa, X kromosomaren inaktibazioa. Oroimen zitoplasmatikoa. Oroimen autokrinoa. Des-desberdintzapena eta trans-desberdintzapena.

9. MORFOGENESIA. GORPUTZAREN EREDUAREN ERAKETA. Zelulen espazioa eta desberdintzapena. Gorputzaren ereduaren eraketa. Posizioa edo kokapenaren informazioa: gene homeotikoak. Ozipineko euliaren ereduaren eraketarako geneak: arrautzaren polaritatearen geneak, lakainketa geneak, homeogeneak. Sekuentzia homeotikoak. Ereduaren eraketarako geneen kontserbazioa eboluzioan.

10. EHUNEN BERRIZTAPEN ETA MANTENUA. Zelulen egoera desberdintzatuaren mantenua. Zelulen berriztapena. Bikoizpen bidezko berriztapena. Hozizelulen bidezko berriztapena.

11. MINBIZIA ZELULEN BIOLOGIA. Definizioak: Tumore onbera eta gaiztoaren, metastasia, eta minbiziaren definizioa. Minbizi-zelulen fenotipoa eta ezaugarriak. Minbiziaren aurreratzea: hasiera, sustapena. Agente kantzerigenoak: agente kimikoak, agente fisikoak, birusak. Erretrobirusak. Proto-onkogene eta onkogeneak. Gene tumore-ezabatzaileak. Akatsak DNAREN konponketan.

12. ZELULEN ZAHARTZAPENA. Definizioa; Hayflick muga. Mekanismoak. Teoria estokastikoak edo akatsaren teoriak: oxigenozko erradikal askeak. Teoria deterministak: gerontogeneak, zelulen zikloaren eraenpena, telomeroen luzeraren murrizpena.

13. ZELULEN KALTETZEA ETA HERIOTZA. Zelulen kaltetzea. Nekrosia. Apoptosia: Zelulen barneko eta kanpoko seinaleak. Kaltzioaren garrantzia. Kaspasak Mitokondrioak eta apoptosia (C zitokromoa eta AIF). Apoptosia enbrioiaren garapenean eta organismo helduetan.

14. MINBIZIAREN ZELULEN BIOLOGIA. Definizioak: Tumore onbera eta gaiztoaren, metastasia, eta minbiziaren definizioa. Minbizi-zelulen fenotipoa eta ezaugarriak. Minbiziaren aurreratzea: hasiera, sustapena. Agente kantzerigenoak: agente kimikoak, agente fisikoak, birusak. Erretrobirusak. Proto-onkogene eta onkogeneak. Gene tumore-ezabatzaileak. Akatsak DNAREN konponketan.

PRAKTIKEN EGITARAUA

GELAKO PRAKTIKAK

1. Bilaketa bibliografikoak PubMed-en eta mintegien prestaketa
2. Gene eukariotikoaren antolaketa
3. Minbizia
4. Biogenesisia eta proteinen kokapen-seinaleei loturiko mutazioek eragindako gaixotasunak

LABORATEGIKO PRAKTIKAK

5. Morfogenesisia: gorputz-ereduaren eraketa.
6. Zelulen zikloaren eraenpena eta zitoskeletoa zelulen zatiketan.
7. Minbizia.
8. Zelulen atxikidura eta mugimendua.

MINTEGIAK

9. Programa teorikoan ikusitako eduki eta metodologiei buruzko egungo ikerketa artikuluetan oinarritutako lana

METODOLOGIA

METODOLOGIA

TEORIA SAIOAK. Ikasleek eGela plataforman izango dituzte aurkezpenak. Era berean, eGela platofoman interesgarriak diren hainbat bideo eta esteka jarriko zaizkie ikasleei, gaiaren edukietan sakontzeko aukera izan dezaten.

LABORATEGIA PRAKTIKA SAIOAK. Biologia Zelularren oinarritzko tekniken bidez (mikroskopia eta zelulen hazkuntzak) Zelulen Biologia Molekularrak izan ditzakeen aplikazio ezberdinak aztertuko dira.

IKASGELAKO PRAKTIKA SAIOAK. Zelularen Biologia Molekularreko ikuspegi ezberdinak edukitzeko, datu base ezberdinak aztertuko dira.

MINTEGI SAIOAK. Taldekako aurkezpen baten bitartez Zelulen Biologia Molekularren gaur egungo ikerketan sakonduko da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	36	4	6	14					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	54	6	9	21					

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 55
- Test motatako proba % 15
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 15
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 15

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira EHUn araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

OHIKO DEIALDIAREN EBALUAZIOA:

A) EBALUAZIO JARRAIA.

Azken kalifikazioa hurrengo portzentajeak aplikatuz kalkulatu da soilik atal bakoitzean lortutako kalifikazioa 5 edo handiagoa denean.

- Azterketa idatzia (%55): Proba idatzia gaiaren edukia guztiak aztertzeko izango da. Galdera eta ariketa mota desberdinak izan ditzake, besteak beste, garatzeko galdera motzak, taula konparatiboak edo marrazki eskematikoak, definizioak, probak eta abar. Ebaluazio irizpideakerantzunaren izaera egokia, terminologia zientifikoaren erabilera, adierazpena eta arrazoibideak.

- Test gisako galdetegiak (%15): Kurtosan zehar 15 eta 25 test-motako galderetako galdetegiak egingo dira gaitegi zerrendaren bloke bakoitza bukatutakoan.

- Mintegien ebaluazioa (aurkezpena eta ahozko defentsak) (%15): Zelulen Biologia Molekularrekin lotutako ikerketa-artikuluen hautatzea eta sakontzea. Idatzizko lana eta aurkezpena gelan entregatzea. Ebaluazio irizpideak: Informazioa antolatzea eta egituratzea, terminologia zientifikoa erabiltzea, analisi eta sintesi ahalmena, erakusketaren argitasuna, adierazpen egokia eta komunikazio jarrera, baliabide egokien erabilera

- Praktiken ebaluazioa (%15): eGela plataformaren tresnen bidez hainbat lan entregatzea. Ebaluazio irizpideak: terminologia zientifikoa, adierazpena eta argumentazioa erabiltzea.

Mintegiak eta praktikak nahitaezko jarduerak dira.

B) EBALUAZIO FINALA:

Idatzizko ariketa final bat, teoria ariketekin (70%) eta ariketa praktikoekin (%30). Azken honetan mintegiak eta praktikak sartzen dira eta soilik bi ataletan kalifikazioa 5 edo handiagoa denean hartuko da kontutan.

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA. Etengabeko ebaluazio sistemari uko egin nahi dioten eta azken ebaluaziorako hautua egin nahi duten ikasleek, idatziz adierazi beharko dute.

UKO EGITEA: ebaluazio jarraitua zein etengabea izan arren, nahikoa izango da irakasgaiaren azken kalifikazioa <<Ez Aurkeztua>> izan dadin.

Irakasgai ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, EHUn ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatu da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira EHUn araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintzotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula

egin zuenean Zintzotasunez eta portaera etikoak jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

EZ OHIKO DEIALDIAREN EBALUAZIOA: Teoria %70a eta praktikak %30a (azterketa idatzia %70 eta GA+GL+S buruzko galderak %30a) soilik atal bakoitzean lortutako kalifikazioa 5 edo handiagoa denean.

UKO EGITEA: Azkeneko zein etengabeko ebaluazioaren kasuan, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa <<Ez Aurkeztua>> izan dadin.

Irakasgaiko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, EHUKo ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragotzeari eta etika akademikoari buruzko protokoloan zehazten dena aplikatuko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Klasean jarraitu beharreko oinarritzko materiala eGelan egongo da.
Bata eta protokoloak laborategiko praktiketarako

BIBLIOGRAFÍA

Oinarritzko bibliografia

ALBERTS B, D BRAY, K HOPKIN, A JOHNSON, J LEWIS, M RAFF, K ROBERTS & P WALTER. 2015. Essential cell biology. 4th edit, Garland Science, New York & London.
ALBERTS B, JOHNSON A, LEWIS J, RAFF M, ROBERTS K & P WALTER. 2015. Molecular biology of the cell 6th edit., Garland Science, New York.
GILBERT SF. 2003. Developmental biology. 7th edit, Sinauer Associates Inc. Publishers, Sunderland, Massachusetts. Spanish edition: Biología del Desarrollo. 7th edit, 2005, Editorial Médica Panamericana, Buenos Aires.
KARP G. 2011. Biología celular y molecular: conceptos y experimentos. 6th edit. McGraw Hill.
LODISH H, A BERK, CA KAISER, M KRIEGER, A BRETSCHER, A AMON, MP SCOTT. 2016. Biología Celular y Molecular. 7th edit. Editorial Médica Panamericana, Buenos Aires.
MARIGÓMEZ I & MP CAJARAVILLE. 1999. Zelula. Zelula eukariotikoaren azalpenerako testuliburua. I zatia. Udako Eukal Unibertsitatea, Bilbao.
POLLARD TD & WC EARNSHAW. 2004. Cell Biology. Elsevier Saunders.

Gehiago sakontzeko bibliografia

BECKER WM, LJ KLEINSMITH & J HARDIN. 2007. El Mundo de la Célula. 6th edit. Pearson Educación S.A.
BROWN TA. 2007. Genomes 3. 3rd edit. Garland Science, New York.
JUNQUEIRA LC; CARNEIRO J. 2005. Histología Básica. Texto y Atlas. 6th edit, Masson SA, Barcelona.
PANIAGUA R, NISTAL M, SESMA P, ÁLVAREZ-URÍA M, FRAILE B, ANADÓN R, SÁEZ FJ. 2007. Biología Celular. Vol.I. 4th edit, McGraw-Hill-Interamericana, Madrid.
STEVENS A, LOWE J. 1998. Histología humana. Harcourt Brace.
WOLPERT L, TM JESSELL, P LAWRENCE, E MEYEROWITZ, E ROBERTSON & J SMITH. 2010. Principio del desarrollo. 3rd edit. Editorial Médica Panamericana.

Aldizkariak

Annual Review of Cell and Developmental Biology
Cell
Cell and Tissue Research
Current Opinion in Cell Biology
Experimental Cell Research
European Journal of Cell Biology
Histochemistry and Cell Biology
International Review of Cytology
Journal of Cell Biology
Journal of Cell Science

Interneteko helbide interesgarriak

<https://www.proteinatlas.org/>
<https://www.ncbi.nlm.nih.gov/books/NBK21054/>

<http://blogs.nature.com/blog/category/cell-and-molecular-biology/>

OHARRAK

Irakasgaiaren koordinatzailea: Nerea Garcia Velasco: nerea.garcia@ehu.eus

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztu gabea**Plana** GBIOLO30 - Biologiako Gradua**Ikastaroa** Zehaztu gabea**IRAKASGAIA**

26815 - Zoogeografia

ECTS kredituak: 4,5**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

ZOOGEOGRAFIA, edota Biogeografia era zabalago batean, Biologiako oinarritzko arlo bat da espazio geografikoaren (aldaturaz joan dena Lurraren historian zehar) eta bizidunen arteko harremanak aztertzen dituen. Biodibertsitatea eboluzioaren isla geografikoa da azken batean. Prozesu ebolutiboak (espeziazioa, dibertsifikazioa, suntsipena) ezin dira ulertu geografiaren eraginik gabe (kontinenteen jitoa, orografia, klima).

Zoogeografiak bizidunek Lurrean duten banaketa aztertzen du, eta bai ere berori bideratu duten prozesuak, edota suntsipena ondorioztatu dutenena.

Zientzia disziplinartekoa da, sintetikoa eta konprometitua, eta aintzat hartzen dituen gizakiak biosferan sorturiko aldaketen kudeaketa eta ulerketa.

Bizidunen banaketa eboluzio biologikoaren eta leinuen sakabanakuntzaren ondorioa da, eta prozesu horietan zerikusi handia eduki izan dute bai aldaketa klimatiko global eta erregionalek eta bai orogenesiaren eta kontinenteen jitoaren ondoriozko itsaso eta lurren konfigurazioak. Biogeografia zientzia historikoa da, alegia, ibilbide jakin baten ondoriozko emaitzak aztertu behar ditu, eta alde horretatik ez da nahikoa printzipio orokorretara jotzea eta horietan oinarrituta datuak deduzitzea. Zehazki, lurralde bateko bizidunak ezin dira faktore geografikoetatik deduzitu, baizik eta enpirikoki aztertu behar dira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Oinarritzko kontzeptuak ezagutu eta ulertzea eta, halaber, diziplinaren terminologia erabiltzea, bibliografia zientifikoa irakurri eta egokiro interpretatu ahal izateko.
2. Biogeografia gauzatu duten bai zirkunstantzia historikoak eta bai zientzialariak ezagutu eta kontextualizatzea, ulertu ahal izateko gaur egungo enfoke multidisziplinarra.
3. Ulertzea zer-nolako harremana dagoen txoko ekologikoaren eta banaketa geografikoaren artean, espezieen banaketa-patroiak interpretatu ahal izateko egokiro.
4. Ezagutu eta ulertzea, izatez, patroia biogeografikoak episodio eta prozesu askoren $\rightarrow$ hala tektoniko eta ebolutiboren nola klimatiko eta ekologikoren $\rightarrow$ emaitza direla, era horretara konturatzeko, biogeografia eboluzioaren isla espaziala dela.
5. Ulertzea bai irla-oreka dinamikoaren modeloa eta bai berorrek espezieen kudeaketan eta kontserbazioan duen erabilera ere, helburua izanik osteko aplikazio praktikoa.
6. Iturri bibliografikoak eta datu faunistikoak hautatu, bildu eta prozesatzea, horrela banaketa-mapak osatu eta software biostatistiko eta geografikoa erabiliz analisatu ahal izateko.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**SARRERA**

1. Zientzia biogeografikoa.
2. Biogeografiaren historia.

INGURUNE FISIKOA ETA OINARRIZKO PATROI BIOGEOGRAFIKOAK

3. Kokapen fisikoa.
4. Espezieen banaketa.
5. Komunitateen banaketa.

LURRAREN HISTORIA ETA OINARRIZKO PROZESU BIOGEOGRAFIKOAK

6. Sakabanakuntza eta immigrazioa.
7. Espeziazioa eta suntsipena.
8. Lurra aldatzen.
9. Glaziazioak eta Pleistozenoko dinamika biogeografikoa.

LEINU ETA BIOTEN HISTORIA EBOLUTIBOA

10. Dibertsifikazioaren geografia.
11. Leinuen historiaren berreraiketa.
12. Bioten historiaren berreraiketa.

BIOGEOGRAFIA EKOLOGIKOA

13. Irlen biogeografia: espezie-aberastasunaren patroiak.

14. Irlen biogeografia: komunitateen gardainaketa eta eboluzioa.
15. Areografia, arau ekogeografikoak eta dibertsitate-gradienteak.

KONTSERBAZIOAREN BIOGEOGRAFIA

16. Biodibertsitatea eta suntsipenaren geografia.
17. Kontserbazioaren biogeografia eta gizateriaren biogeografia.
18. Biogeografiaren mugak.

PRAKTIKA-PROGRAMA

Laborategi-praktikak.

1. Kartografia eta korologia
2. Datu biogeografikoen iturriak eta tratamendua
3. Lurralde jakin bateko espezieen korologia
4. Informazio korologikoaren analisi eta sintesia

Landa-praktika

ENDEMISMOEN BANAKETA. Laginketa faunistiko baten planifikazioa. Laginketaren burutzapena esleituriko kuadrakulan eta identifikazio taxonomikoa. Emaizten txostena.

Mintegiak

- 1/ Landa-praktika egiteko argibideak (planifikazioa, laginketa, identifikazio taxonomikoa)
- 2/ Argibideak banakako lanetarako: kontzeptu, patroia eta prozesu biogeografikoak

METODOLOGIA

Programako ikasgaiak luzera desberdineko unitateak dira, eta beraz, ez dute iraupen bera edukitzen.

Idazlan pertsonaletarako ezinbestekoa da ingelesaren ezagumendu oinarritzko bat, hizkuntza horretako informazioaz baliatu ahal izateko.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	2		10					3
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	30	20		5					12,5

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoa

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 20
- Test motatako proba % 50
- Banakako lanak % 15
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 15

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO JARRAITUA

Kalifikazioa ondoko noten batuketaz lortuko da:

1/ TEORIA (%70). Azterketa finala.

2/ LANAK ETA ATAZAK (%30):

A- Bakarkako lana patroia eta prozesu biogeografikoei buruzkoa.

B- Talde-lana euskal endemismoren baten gainekoa (diseinu, laginketa eta txostena).

C- Irakasgaiarekin zerikusia duen liburu baten irakurketa eta ondoren txostena prestatzeko aukera baloratuko da.

Lanen ebaluaziorako irizpideak: informazioaren antolaketa eta egituraketa, terminologia zientifikoaren erabilera, analisi

eta sintesirako gaitasuna, baliabideen erabilera egokia. Laborategiko praktiketara joatea nahitaezkoa da ebaluazio jarraituaren kasuan

AZKEN EBALUAZIOA: Azterketa teoriko-praktikoa (100%).

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatutako izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

DEIALDI-ERRENUNTZIA: egungo araudiaren arabera.

Irakasgai hau ebaluatzeko proba eta jardueren ardatz izango dira UPV/EHUren araudian xedatzen diren printzipioak: zuzentasun akademikoa, zintotasuna eta jarrera etikoa. Ikasleak onartzen eta gogoratzen du unibertsitatean matrikula egin zuenean Zintotasunez eta portaera etikoz jokatzeko konpromiso adierazpena izenpetu zuela eta, haren bidez, hitzeman zuela plagiorik edo bestelako iruzur akademikorik ez zuela egingo, ezta ebaluazio probetan eta lanetan baimenduta ez dagoen objektu eta gailu teknologikorik erabiliko ere. Adimen artifizialeko tresnak barne, halakorik berariaz baimenduta ez dagoenean. Betebehar horiek urratzeak ondorio akademiko eta diziplinazkoak izan ditzake, unibertsitatean indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

Irakasgaiko ebaluazio-probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere. Jokabide makur eta iruzurrezkoren bat gertatzen bada, "UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan" zehazten dena aplikatuko da.

EZOHICO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Notarako protokoloa ohiko deialdirakoa izango da. Salbuespenezko egoeretan, ebaluazio sistema pertsonalizatu ahalko da.

Ez aurkezteak deialdi-errenuntzia ekarriko du, eta Ez Aurkeztu gisara adieraziko da.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Landa-lanetarako arropa eta oinetako egokiak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarritzko bibliografia

LOMOLINO, RIDDLE, WHITTAKER & BROWN. 2010. Biogeography (4th ed) Sinauer Ed
ZUNINO & ZULLINI. 2003. Biogeografía. Fondo de Cultura Económica
HUGGETT. 1998. Fundamentals of Biogeography. Routledge Ed.
COX, MOORE & LADLE. 2016. Biogeography: An Ecological and Evolutionary Approach (9th ed) Wiley-Blackwell

Gehiago sakontzeko bibliografia

AKÇAKAYA et al. 2004. Species Conservation and Management. Case Studies. Oxford UP.
BLONDEL & ARONSON. 1999. Biology and wildlife of the Mediterranean Region. Oxford UP
BRIGGS. 1995. Global Biogeography. Elsevier Ed.
CRISCI, KATINAS & POSADAS. 2003. History Biogeography. An introduction. Harvard UP
GANDERTON & COKER. 2005. Environmental Biogeography. Pearson
LOMOLINO & HEANEY. 2004. Frontiers of Biogeography. Sinauer Ed.
MAC ARTHUR & WILSON. 1967. The Theory of Island Biogeography. Princeton UP
MACDONALD. 2003. Biogeography. Space, Time and Life. John Wiley Ed.
MORRONE. 2009. Evolutionary Biogeography. Columbia UP.
MÜLLER. 1979. Introducción a la Zoogeografía. Ed. Blume
NELSON & PLATNICK. 1981. Systematics and Biogeography. Cladistics and Vicariance. Columbia UP
WILSON. 1992. The diversity of life. Harvard UP
SPELLERBERG & SAWYER. 1999. Applied Biogeography. Cambridge UP
VARGAS, REAL & ANTUNEZ. 1992. Objetivos y métodos biogeográficos. Monografías Herpetología,2 (Asociación Herpetológica Española, MNCN)
WHITTAKER. 1998. Island Biogeography. Oxford UP

Aldizkariak

Journal of Biogeography
Biodiversity & Conservation
Global Ecology and Biogeography

Diversity and Distributions
Biodiversity Data Journal
Ecography

Interneteko helbide interesgarriak

International Biogeography Society	http://www.biogeography.org/index.html
Webpage de Dr. Ron Blakey	http://jan.ucc.nau.edu/rcb7/index.html
Biodiversity Heritage Library	http://www.biodiversitylibrary.org
Sociedad Entomológica Aragonesa	http://www.sea-entomologia.org/
Global Biodiversity Information Facility	http://www.gbif.org/
Atlas Climático Digital de la Pen.Ibérica	http://opengis.uab.es/wms/iberia/

OHARRAK